

AZPEITIA

GUKA

PLAZA
BETE
DANBOR





BIJOTA

Altzariak eta atsedena



Ondo pasau sansebastianak!

Landeta hiribidea, 6 • AZPEITIA • 943-15 18 44 • 680 56 31 88
www.bijotaaltzariak.com



Deabrua askatzeko unea



Iritzia
Ihintza Elustondo

Orain gutxi entzundako elkarrizketa bat.

A-k ez du parrandarik egin abuztutik edo. "Zintzo eta lasai nabil", esan dio B-ri, lortu duenaz harro. Baina urtea azken hondarrera iritsi da, eta gauzak aldatzera doaz. "Benetako azpeitiarra denak, San Tomas egunean hasi, sansebastianak igaro, eta karnabalak arte behintzat ezinezkoa du lasai ibiltzerik", esan dio.

B-k barre egin du.

A-k esan dio sekulako ahalegina egin duela udaz geroztik bere parrandazaletasunari uko egin eta "deabrua giltzapean" izateko. B-k erantzun dio bere inguruko jendeak asmatzen duela horretan, baina berari zaila zaiola. "Soziedadean lagunarteko afari bat dugu-nean, nire kuadrillako batzuk berehala hasten dira kontuak egin behar ditugula esanez, eta beste batzuk sekula ez dugu presarik izaten kontuak egiteko".

A-k eta B-k badirudi elkar ondo ulertzen dutela. Biei iruditzen zaie, 20 urte aspaldi pasatuta dituztenez, zintzoago ibiltzeko garaia iritsi zaiela, gaueko aldrebeskeria murrizteko sasoia honezkero badutela. Baina teoria aspaldi ikasi bazuten ere, norbera dena nekez ezkututzen da: aingeruaren ondoan, deabrua beti ateratzen da azalera.

A-k aholkatu dio B-ri, berak egin duen bezala, deabrua bolada batez giltzapean sartzea, kalerik ez zapaltzea, eta horrela parrandarako gogoa itzalpean izango duela.

B-k entzun dio aholkua, eta buruari buelta batzuk ematen hasi da: "Larunbatean, zer joango naiz, mendira? Edo



Iaz San Sebastian bezperan plazak zuen itxura. ARNAITZ RUBIO APREA

pasierara? Igandean, bizkotxo bat egitea ote da aukera? Eta hurrengo astean, berriz gauza bera?". Pentsatzen aritu dena isilpean mantendu, eta benetan pentsatzen duena irten zaio ahoz gora: "Nik uste dut giltza hori galdu egin nuela".

Atzera kontaketa hasi da

Igaro ziren santomasak, eta urte berrian sartuta, sansebastianetarako atzera kontaketa martxan da. Giltzapean ziren deabruak honezkero muturra ziegatik ateratzen hasi dira, begiak diz-diz dituztela. Eta horretarako nahikoa motibo bada.

Sansebastianak dira Azpeitiko festa parte hartzaileenak, haurrak, gazteak eta zaharrak elkartzen dituztenak. Hotza, euria edo elurra egin, beti aurrera egiten dutenak. Botiketako partxe berogailuak zer diren irakatsi digutenak. Geldialdietan, bihurrikeriak egitera bultzatzen gaituztenak (Etxe Zuri, Mendizaliek...); 00:00etako kanpaiak jotzean, oilo ipurdia jartzen digutenak.

Falta ditugunak gogora ekartzen dizkigutenak. Danbor taldeetan konplizitateak sortzen dituztenak, ondokoaren maki-lak zurearen kontra kolpatzera bultzatzen zaituztenak. Denak lagun bilakatzen gaituztenak. Azpeitian jaio izanaz harro sentiarazten gaituztenak.

"Ama! Eskerrik asko Azpeitian jaio izanagatik", esango luke bateren batek.

Askotan abestiek adierazi ohi dute herri baten izaera, eta gure doinuak gogora ekartzeak balio dezake nor garen jakiteko. "Sebastian bat bada

zeruan, Azpeiti bat bakarra munduan", kantatuko dugu sansebastianetan. Baina zerua bezala, ageri da gure kantuetan haren ispilua ere: "Nahiz betor Luzifer deabrua, utzirik infernua". Nondik begiratzen den izaten da kontua.

Urte berrian sartuta, berriro topo egin dute A-k eta B-k. "Urte berri bizimodu berri" izan daiteke, edo "zaharrak berri" ere bai. Seguru asko zintzotasunerako promesak eginak izango dituzte batek baino gehiagok, baina A-k eta B-k giltza galduaren bila jarraitzen dute. Azkenean, hauxe izan da bien ondorioa: "Agian, kontua izango da onartzea deabruak geu garela".

Benetako azpeitiarrak, heldu da deabru txikiak askatzeko unea. Ireki ziegako atea, karnabalak arte pasierak eta bizkotxoak egiteko nahikoa denbora bada eta.

Danborrak astinduz, konplizitateak sortuz eta elkar errespetatuz, ondo pasatu sansebastianak! Zeruan ez bada, infernua goza dezazuela!

Giltzapean ziren deabruak honezkero muturra ziegatik ateratzen hasi dira

Danborrak astinduz, konplizitateak sortuz eta elkar errespetatuz, ondo pasatu sansebastianak!

HORTZEDER
H O R T Z K L I N I K A

Eliz kalea 23 | 943 816 668



"Konturatzera", 50. irrintzia

Aurtengo urtarrilaren 19a data berezia izango da Irrintzi elkartearentzat. Izan ere, taldeak 50. aldiz irtengo du helduen danborradan. Gauerdia iritsi aurretik, merezitako omenaldia jasoko dute bilgunea Enparan kalean duten sukaldariak. Elkarteko kide batzuekin izan da Guka 50 urteko ibilbidea errepasatzeko asmoz.

Herriko hiru gazte kua-drillak sortu zuten Irrintzi elkarteak duela 50 urte. Lehenbiziko pausoa elkar-tearen egoitzaren kokalekua zehaztea izan zen, eta ez zen lan erraza izan. Hala gogoratu du German Requejo elkartearen sortzaileetako batek: "Batetik bestera ibili ginen, lokalak ikusten. Paulo VI auzoan ikusi genuen lokal bat, baina bigarren aldiz joan ginenean, haren prezioa igo egin zuen jabeak, eta ezezkoa eman genuen". Handik gutxira aurkitu zuten gaur egun Enparan kalean duten lokalak, garai hartan Sindikatu Bertikala edo Zaha-

rra zena, eta aurrez, 1932. urtearen inguruan, Errepublikaren egoitza izandakoa.

Aukera egokia ikusita, aurrera egitea erabaki zuten hiru kuadrillek, eta lokalak egokitze-lanekin hasi ziren. Garaiko ohiturei jarraituz, beraiek egin zituzten obrak: "Eraikinaren behealdean zuloa zegoela eta beste solairu bat ateratzeko aukera bazela esan ziguten, eta hala hasi ginen harria puskatu eta harria puskatu. Dena den, han ez zen zulorik agertzen... Lokalaren erdia zulatuta, eraikinak aguantatuko ote zuen beldur ginen, eta zementua bota genuen. Egindako lana, ordea, aprobetxatu ahal izan genuen; biltegia, komunak eta parrilla egin genituen beheko zatian".

Soziedade gisa ez ezik, kultur eta kirol elkarte izaerarekin eratu zuten Irrintzi, eta, beraz, arlo horiei lotutako hainbat egitasmo egin izan zituzten urteetan; besteak beste, krosa. "Jai Karnabalean egiten zen maratoi erdia, eta haren antolakuntzan laguntzen genuen. Gero, berriz, umeen krosa egiten hasi ziren, eta horretan ere aritzen ginen. Denetarik egiten genuen: antolakuntza lanak, aurkezle lanak eta sari banaketak ekitaldia", esan du Requejok. Elkartea abian zela, ez zuten galdu danborradan parte hartzeko aukera. Lehen urte hartan, ordea, arropa propiorik ez zuten, eta Pikua tabernako Peña Taurina El Andaluz-egungo Zezenzaleak- tal-



Softekin
INFORMATIKA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Iberotarren Plaza 8 behea 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA • 943-81 51 51 • softekin@softekin.com

www.softekin.com



ZUK ETA ZURE
ETXEAK
MEREZI DUZUEN
GUZTIA

SEIN ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Garmendipe 1, AZPEITIA (Futbol zelaiaren parean) · www.seinbriko.es

BURDINDEGIA
BRIKOLAJEA
DEKORAZIOA...





EGURTZA
INMOBILIARIA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

info@egurtza.com
www.egurtza.com • 943-82 90 74 • Erdi Kalea, 21 • AZPEITIA



korrale
taberna

**Ondo pasau
sansebastianak!**

Erdi kalea 27, Azpeitia | 943-81 06 01

CENTERPOINT
ENGLISH ACADEMY

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

943-81 65 03 - www.centerpoint.eus

L4U BIDE
JATETXEA

**ondo pasau
sansebastianak!**

Landeta Hiribidea, 2 • Azpeitia • T. 943-81 68 78
www.laubidejatetxea.com



landeta
brikodenda

**ondo pasau
sansebastianak!**

Landeta hiribidea, 8 • Azpeitia • 943-81 25 66
www.landetabrikodenda.com



6

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**



dekoekin atera ziren Irrintzi-koak. Gerora, taldea sortzearekin, sukaldari jantzia hautatu zuten elkartekoek, "egiteko errazena" zelako: praka, jaka eta txapel zuriak. Beste talde batzuek erositako danborrak bazituzten, gainera, eta "ahalik eta azkarren" irten ahal izan zuten, Requejok azaldu duenez.

Gaur egun ere sukaldari jantziak ditu Irrintzi taldeak, baina badira jantziei aldaketak egin zizkietela urte batzuk: koadrodun prakak jantzen dituzte orain. Hala azaldu du aldaketaren arrazoia sozie-

dadekoak: "Sukaldari modernoak izateko garaia heldu zitzaigula erabaki genuen, eta jantziak aldatu genituen".

Taldean danborradan 50 urte beteko dituenean, urteak "konturatzerako" igarotzen direla esan du Requejok. Haren hitzetan, "hegan" igaro da mende erdia, nahiz eta Irrintzi elkarte ez ezik, danborraren bueltako festa ere asko aldatu dela dioen: "Duela 50 urte hamar talde inguru ateratzen ziren danborradan, eta aurtan, 33 izango dira. Ikaragarri hasi da festa! Emakumeen presentzia ere erabat ziurtatu dago

orain, bai festan, bai elkartean; lehen emakumeek ezin izaten zuten elkarteko kide ere izan".

Ospakizunekin hasita

Urtarrilaren 19ko gauerdia iritsi baino zertxobait lehenago, Irrintzik Azpeitiko herriaren omenaldia jasoko du udalaren eskutik. 50. urteurrena goratzeko oroigarria egun horretan jasoko dute elkarteko ordezkariak, baina ospakizunetan hasiak dira dagoeneko. Ekainaren 14an elkarteko kideek Navarrete (Espainia) irteera egin zuten; 26 bat lagun joan ziren Errioxara, eta



pare bat upategi bisitatzeaz gain, hamaiketakoaz eta bazkariak gozatu ahal izan zuten. San Sebastian festak iritsita, ez dute ezer berezirik egitea aurreikusten, dena den. Jon Iriarte Irrintzi elkarteko lehendakariak azaldu duenez, ez dute afari berezirik egingo, baina danborradan Irrintziren taldean urte luzez ohikoak izan ziren koilareak, sardeskak eta zartaginak aterako dituzte. "Oraingoz, Requejo eta biok aterako gara tresna horiekin... Ea norbait gehiago animatzen den!". Tresneria ondo gordeta izan dute azken urteetan, baina be-

rreskuratzeko garaia iristean, zartagina pipiak jota zegoela ohartu ziren; ondorioz, ezinezkoa izango zaie tresna hori ateratzea. Bestetik, taldeko lehen zuzendari izan zen Joxe Karapeto berriro irtetea nahi dute taldekideek, nahiz eta "zaila" izango dela badakien Iriartek: "Ezezkotan dago, baina konbentzitzeko azken saiakera egingo dugu". Eta aurtengo danborradan bandera behintzat izango dute. Izan ere, taldea danborradan atera den 49 urteetan bi aldiz "galdu" zaie bandera. Lehenbiziko bandera hura eskuz bro-

datutakoa zen, "oso ederra" Requejoren hitzetan, baina bat-batean galdu egin zitzaion. "Festak iristeko gutxi falta zen eta presaka eta korrika joan behar izan genuen Donostiara berria egitera", azaldu du Requejok. Handik urte batzuetara, hura ere galdu egin zuten: "Elkartearen atarian jartzen genuen orduan, goiko solairuko balkoian, eta asko maite gintuen norbaitek harrapatuko zuen...". Hirugarren bandera egin zutenetik kontu gehiagorekin gordetzen dute, eta ondo jasota dute, urtarrilaren 19rako prest.

zaher
GROUP

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Pol. Ind. Ugarte Pab. 72-73 • 20720 Azkoitia (GIPUZKOA)
Telf: 943-85 71 20 • www.zaher2000.com

JOXE RAMON
• harategia •

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolabide 23 • Azpeitia • 943-8105 59 • 636 92 86 49

adi
optika / audio
zentroa

ondo pasau sansebastianak!

Azpeitia Jose Artetxe 21 • 943-15 75 74 • 663 63 73 55 • www.adioptika.com

VEO PLANA
100 euro arteko
laguntzak betaurrekoak
edo lentillak eskuratzeko

Veo planarekin kolaboratzen duen optika

OPICOS OPTOMETRIAS

AVIA

• Erregaiak • Butanoa • Zerbitzu pertsonalizatua
• Deskontuak Avia txartelarekin
• Deskontuak Azpeitia txartelarekin
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK

Ezkuzta pasealekua, z/g • AZPEITIA

IO
losu Optika
OPTIKA AUDIO

Ondo pasau
sansebastianak!

ERDI KALEA, BEHEA ZG • 943 15 12 91 • AZPEITIA

RPS 20E.32961

Nola bizi dute danborrada?



Igor Aranguren
Inpernue elkarte

Inauteri zalea dela onartzen duen arren, Igor Arangurenek baditu ahaztu ezin dituen San Sebastian festei lotutako hainbat oroitzapen. Duela lau urte inguru egin zen Inpernue elkarte bazkide, eta ordutik, talde horrekin irteten du danborra jotzen. Aurrez ere danborradan atera izan da, baina, Aranguren. "17 urte izango nituen Etxera taldearekin irten nuenean, eta urte hartan, justu, jantzi berriak estreinatu genituen. Ordutik, sansebastianei zuku gehiegi atera gabe zegoela onartu du, Inpernue elkartera batu zen arte. "Orain poztasuna sortzen didate sansebastianek; danborradan ateratzen naizenetik, festa asko hobetu da niretzat".

Danborradakoa esperientzia ezin hobea dela esan du, talde eta lagun giro paregabea dituztelako. "Beste taldeetan ere giro bikaina izango dute, baina Inpernu soziedadean lortzen duguna ikaragarria da". Duela bi urte, taldeko zuzendariak ezin izan zuen danborradan irten, eta Arangureni egokitu zitzaion hura ordezkatzeari. Haren hitzetan, "ohorea" izan zen taldea gidatzea.

Duela hamar-hamabi urte hasi zen Itxaso Larrañaga Etxera taldearekin danborradan irteten. Dena den, aurretik, bizpahiru urtetan jo zuen danborra aitaren elkarte taldean, Zokoan. Etxera taldeko emakumeak 17:30erako elkartzen dira buruan eramaten duten zapia janzteko, eta ondoren, poteoa egiten dute. Hori da, hain zuzen ere, Larrañagari sansebastianetatik gehien gutatzen zaiona: "Orkatzen elkartzen gara denok, eta poteoari ekiten diogu. Gero afaria egiten dugu, eta sabelak betetakoan, argazkia ateratzen dugu tabernaren aurrean". Haren ustez, "ederra" izaten da danborrada hasi aurretik Erdikaletik kalean gora joaten diren unea. "Danborrada bera gustatu egiten zait, baina aurreko guztia, are gehiago".



Itxaso Larrañaga
Etxera



Sara Zabaleta
Iraurgi saskibaloia taldea

San Sebastian bezpera "asko" gustatzen zaio Sara Zabaletari. Hark dioenez, "egun berezia eta desberdina" izaten da. Urte guztian ikusten ez dituen edota harreman zuzenik ez duen pertsonarekin egoteko aukera izaten du egun horretan, eta hori gustuko du Zabaletak: "Afarian, danborradan eta ondorengo parrandan elkarren artean sortzen den giroa ederra izaten da; adin, gustu edota giro desberdinetako pertsonak elkartzen gara egun horretan".

Gaztetan hasi zen helduen danborradan irteten, Irrintzi elkartearekin, hain zuzen ere. Talde horretan banderaduna ere izan zen 18 urte egin zituen urtean. 2004. urtetik, taldea sortu zutenetik, baina, Iraurgi saskibaloia taldearekin ateratzen da Zabaleta. "Jantzia egin nuen arren, ezin izan nuen irten lehen urte hartan; izan ere, unibertsitate ikasketetako azken urtea ari nintzen egiten Mexikon. Ondorioz, urtebete beranduago irten nuen lehen aldiz saskibaloia taldekoekin".

Aurten ere ez du hutsik egingo danborradan, baina lan eguna izanik, 16:30 edo 17:00 aldera aterako da lanetik, eta gero batuko da festara. "Prestatu ondoren, taldekideekin geldituko naiz pare bat trago hartzeko, eta 19:30erako afaltzera joango gara. Ondoren etorriko denerako prest egongo naiz".



Aitziber Salegi
Harkaitza elkarte

Astelehen karnabal batean jaiotakoa da Aitziber Salegi, eta ondorioz, inauteriak ditu jairik gustukoenak, "ezin zukeen izan bestela", baina sansebastianetan ere asko gozatzen duela esan du. "Helduen danborradan atera nintzen lehen aldian banderadun izan nintzen; 17 urte nituen". Orduz geroztik, danborra astinduz igaro izan ditu herriko kaleak San Sebastian bezperan, Etxera taldearekin lehen, eta Harkaitzarekin, gaur egun.

Argi du sansebastianetatik zer duen gogokoen: "Herriarrek sortzen duten jaia da. Ez dut sansebastianak iritsi

eta festan parte hartu ez izanaren oroitzapenik. 3 urte nituenerako, amak inude janzten ninduen San

Sebastian egunez, eta familia guztia kalera irteten ginen. Ondoren, ikastetxetik atera nintzen haurren danborradan, eta helduenean, berriz, denetarik probatu dut: banderadun nahiz kantinera, barrikak eta danborrak... Denetarik egin dut!".

Sansebastianak "nahi duen orok" parte hartu dezakeen festak direla esan du, eta berak, jaiaz gozatu ahal izateko, "ahal duen moduan" antolatzen dela adierazi du, batzuetan ez baitzaio erraza egiten bezperan prestatzea: "Jantzia, ahal dela, prestatuta uzten dut aurreko egunean; izan ere, egokitu izan zait arratsalde zela egitea eta orduak libre eskatu behar izatea afaltzera iristeko".


Antonio Gallarin Ziripot elkarteko taldearen zuzendaria da gaur egun. Horretan hasi aurretik danborra jotzen irteten zuen desfilean, eta bi rola gustatzen zaizkiola onartu du: "Danborra jotzea oso ederra da, beste modu batera bizitzen da festa; taldekideekin hitz egin, *Idiarena* abestiarekin dantzatu... Konplizitate horretan sortzen diren anekdotak ikaragarriak dira. Zuzendari izateak, berriz, ardura dakar berarekin: taldea txukun joatea, ondo zuzentzea...

Eskolako garaian ere izan nintzen

zuzendari, eta ezin ukatu gustatzen zaidanik!".

Gallarani danborradatik gehien gustatzen zaion unea Soreasuko Sebastian Donearen parroikiko geldialdia da: "Bi pieza bakarrik jotzen dira han, *San Sebastian martxa* eta *Soreasuko Sebastian*, baina ikaragarritzko xarma duen lekua da: akustika, argiztapena... Txikitatik gustatzen zait une hori; izan ere, gurasoen lagun baten parroikia aurreko etxera joan ginen, eta txundituta geratzen nintzen handik ikusten nuenarekin. Orduetik, oroitzapen oso onak izaten ditut une horretan".

Ikuspuntu desberdinetatik bizi du Gallarinek festa; izan ere, gaur egun udaleko zinegotzi ere bada, eta San Sebastian eguneko korporazioan eta elizkizunean ere parte hartzen du. "Horri esker, beste San Sebastian festa batzuk ezagutu ditut. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek parroikia barruan jotzen dute *San Sebastian martxa*, eta une hori edozein azpeitiarrek bizi behar lukeela uste dut".



Antonio Gallarin
Ziripot elkarte

Inauterien ondoren, sansebastianak jai gustukoenen sailkapeneko bigarren postuan ditu Iker Amenabarrek. Gaztea izanagatik, urte ugari daramatza urtarrilaren 19an danborra jotzen, eta horrek ilusioa "zertxobait apaldu" dio azken urteetan. Dena den, festa maitea du danborraren bueltakoa. Zokoa elkartearen taldetik atera izan da betidanik danborradan, eta aurten, festa horretan jarraian parte hartuko duen 25. aldia izango da. "2001. urtean hasi nintzen danborradan ateratzen, 17 urte nituela, eta beraz, urteurren borobila izango dut aurtengoa".

San Sebastian bezpera, urtero nahiko egun "kaotikoa" izaten duela onartu duen arren, aurtengoa lasaiagoa izango duela uste du: "Lana egokitzen denean, dena presaka eta korrika egin behar izaten da, 18:45erako elkartean egotea komeni izaten delako. Behin martxan hartutakoan, ordea, dena ondo joaten da. Aurten, zubia izango dut data horietan, eta beraz, lasaiago ibiliko naizela uste dut".

Txikitatik izan du danborradan irteteko grina. Hark dioenez, umetatik egon zen helduen danborradan irteteko "zain-zain", eta "ederrena" danborradan aitarekin batera ateratzea dela esan du: "Urtean behin danborra elkarrekin jo eta batera egiten dugu parranda ondorenean. Niretzat hori da San Sebastian festek duten berezitasun nagusia".



Iker Amenabar
Zokoa elkarte



Irene Zabarteren eta Maite Azkueren seme-alabak Soreasuko Sebastian Donearen parrokan. ROMAN AZKUE

Sansebastianetarako grinaren transmisioak, etenik ez

Irene Zabarte Gabonetan hasten da San Sebastian jaietarako girotze lanekin. Izan ere, lau seme-alaba ditu, eta urtero, Azpeitiko danborrada osatzen duten taldeen jantziak sortzen dizkie horiei. San Sebastian bezperako iluntzean eta San Sebastian egunean ezin dotoreago ateratzen dira haurrak kalera, festan murgiltzera.



Gora sansebastianak!

Kimubat Taldeko kideok festa zoriontsua izan dezazuela opa dizuegu!

Urrestilla bidea, z/g, Azpeitia | 943 15 00 85 | www.kimubat.eus





na jaio zenean, duela zazpi urte, eta sansebastianak gerturatzzen ari zirela, buruan bueltakak zuen ideia bota zion Zabartek amari: "Senarrak Harkaitza elkartetik atera behar du, eta zergatik ez diogu semeari ere jantzia egiten?". Ideia adierazi orduko jaso zuen amaren erantzuna: "Bai, neuk egingo diot". Horrela hasi ziren urtez urte segida izan duen eginkizunarekin. Lehen semeari jantzi hura egin ostean, bigarrena jaio zen: "Honi ere zerbait egin beharko diogu ba! esan genuen". Horrela, tradizioari eta ilusioari eutsiz segitu dute orduz geroztik. "Are gehiago, urte batzuetan, nahiz eta iazko jantzia oraindik ondo eduki, berria egin izan diegu", adierazi du Zabartek.

Baina nola aukeratzen dute zer jantzi egin? "Erraz" erabakitzen dutela azaldu du: "Gu partaide garen elkarteetakoak egin izan ditugu, baita umeei politikak iruditzen zaizkien taldeetakoak ere". Seme-alabek ere badute, beraz, erabakimena: "Iritzia emateko ahalmena dutenetik beraiei uzten diet jantzia erabakitzen". Transmisioa ez da eten. Izan ere, Zabarteren arabera, haurrek amaren eta amonaren ilusio berbera izaten dute, oraingoz behintzat.

Gabonak iristearekin batera

hasten dira danborradako jantzien sormen prozesuarekin, eta jarraitu beharreko pausoak zehaztutako dituzte dagoeneko: jantzi originala lortzen dute aurrena, eta "kopiatu" egiten dute, detailez detaile. Amak ez dio kontrakorik egiten uzten. Hala esan du Zabartek: "Botoiek ere berdin-berdinak izan behar izaten dute; ez dit uzten desberdinak edo antzekoak jartzen. Donostiako edota

«Egun osoan izaten dituzte jantzita, eta ez diete molestutzen nonbait»

«Oriyori eskatzen dizkiogu danborrak, eta helduen berberak egiten dizkigu»

Tolosako denda berezi guztietara joan izan naiz azpildurak, botoiak eta telak erostera, eta erositakoa itzularazi izan dit berdin-berdina ez izateagatik... Dena oso zehatz egiten dugu".

Prestatu beharreko jantziaren arabera, prozesua errazagoa edo zailagoa izan daitekeela ohartarazi du Zabartek.

Ondo daki hori, duela bi urte Loiolatxo elkarteko soldadu jantzia eskatu baitzion semeak: "Eskerrak galdara lantegia daukagun, eta aitona burdinazko ezkutua egingo ziola esan zion. Urtebete lehenago hasi ginen jantzi harekin... A zer lanak! Kaskoa, adibidez, ez genion burdinazkoa egin, ezin genuen 6 urteko mutila pisu horrekin atera kalera! Inauterietarako txapel bat erosi nuen, forma eman eta zilar kolorez margotu genuen".

Jantziez gain, badira baina danborradako ezinbesteko osagai diren tresnak. Horiek ezin izaten dute falta jaiegutetan: danborra, adibidez. "Oriyori eskatzen dizkiogu danborrak, eta helduen berberak egiten dizkigu, tamaina txikiagoan, noski", adierazi du Zabartek.

Bi semeez gain, bi alaba ere baditu, eta horiek kantineren edo banderadunen jantziak eskatu izan dituztela azaldu du; ondorioz, banderak ere egin egin behar. Eskuz egiten ditu Zabartek berak: "Elkar-tearen logoa edo irudia bilatu, inprimatzera eraman, plantatzeko moduan inprimatu eta plantxa bidez pegatzen ditu zapi handietan. Goizeko

Zoratuta zaudel!". Senarrak hala esaten diola aitortu du Irene Zabartek, baina gustura aritzen da urtez urte San Sebastian jaietako girotze lanetan. Izan ere, lau seme-alaba ditu, eta urtero, Azpeitiko danborrada osatzen duten taldeen jantziak sortzen dizkie horiei. San Sebastian bezperako iluntzean ezin dotoreago ateratzen dira umeak kalera, festaz gozatzeraz.

Txikitatik datorkion zale-tasuna dela esan du Zabartek, etxekoek, gurasoek batik bat, hezurretaraino sartu baitzioten San Sebastian jaiekiko zaletasuna: «Nik modu berezian bizi izan ditut beti sansebastianak, etxean ere horrela bizitzen zirelako. Amari, azpeitiarra ez bada ere, ikaragarri gustatzen zaizkio sansebastianak».

Eta hori da, hain zuzen ere, guztiaren gakoa: ama. Alabaren eta biloben ametsak egia bihurtzen dituelako jostorraz eta hari artean. Seme zaharre-

Azal analisiak dermo aholkurako
Arrisku kardiobaskularra neurtzea
Pastilleroa prestatzea
Autokontrolerako analisiak
D bitamina
Burdina
Tiroidesa
Diabetesa...

Artetxe-Bastida
Farmazia

@artetxebastidafarmazia
688 69 98 88 - 943-81 19 49
Urbite 3, Azpeitia



**12****Sansebastianak**Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA****COVIRAN****ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**Salbe auzoa, 22 | Etxe Alai Kalea, 3
Azpeitia

ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA

LOREO, S.L.

MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAERA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!****aisialdi**

— GASTRO-TOKIA —

Ondo pasau sansebastianak!

f aisialdi gastro-tokia ☎ 943 14 20 39

**Urbite, 4
AZPEITIA
943-81 03 08**

Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasau sansebastianak!**Irene Zabarteren eta Maite Azkueren seme-alaba batzuk, plazan.** ROMAN AZKUE

ordu biak jo izan dizkit lan horiek egiten!".

Hutsik egin gabe

Zabarteren lau seme-alabek gogotik bizi dituzte sansebastianak, eta horren seinale garbia da beren etxea: "Gure etxean urtarrilaren 6an kentzen dugu Gabonetako zuhaitza, eta horrekin batera, egunero-egunero, sansebastianetako musika jartzen dugu bozgorailuetatik. Umeak horren zain egoten dira, eskatu egiten dute". Beraienak ume oso parte hartzaileak direla esan du Zabartek, eta orokorrean, "lotsa gutxi" dutela azpimarratu du. Urtarrilaren 19an eta 20an, egun horietarako propio prestatutako jantziekin irteten dute kalera: «Bezperan goizeko 05:00etan erretiratu bagara ere, 09:40ean kalean egoten gara, parroki barruko danborrada ikusteko. Ez dugu inoiz

galtzen. Semeetako batek, batetik bat, oso gustukoa du une hori, eta danbor jotzaileen ondoan jartzen da bera ere danborra jotzeko». Hutsik egin ezin, beraz, eta bezperako danborradak utzitako ajeari aurre egin behar: "Goizean jaiki, eguzkitako betaurrekoak jantzi, eta kalera!".

Parrokiako danborrada entzun ondoren, plazara abiatzen da familia, han ere danbor hotsak entzuteko, eta ondoren, Plaza Txikira joaten dira. Eguna borobiltzeko bazkaria egiten dute, eta banderaren jaitsiera ere ikusten dute, 24 orduko festari errematea emateko.

Sansebastianetan hutsik ez dutela egiten esatea ez da gehiegikeria, gainera. Izan ere, COVID-19aren pandemian festarik egin ez bazen ere, Zabarte eta familiakoak kalean ibili ziren jantzi berriak soinean ziztutela. "Ez zen danborradarik

izan, baina jantziak eta gogoia izanda, kalera irtetea erabaki genuen. Azpeitia Gukako kazetari bat kalean ari zen argazkiak ateratzen, eta hala esan zidan: 'Norbait behar nuen egun triste hau alaitzeko'. Udaletxeko arkupeetan atera genuen argazkia", azaldu du.

Lagunarekin

Hasierako urteetan Zabarteren familiakoak soilik ateratzen ziren jantziekin-eta kalera, baina horretan hasi eta urte gutxira Maite Azkue laguna eta haren haurrak ere batu ziren festara. Pozik kontatu du hori Zabartek: "Elkarrekin horrenbeste denbora igarota... Maitek, gainera, nik adina bizi ditu sansebastianak. Jantziak lortuko nizkiola edota gure seme-alabei txikiagi geldituta-koak utziko nizkiola esan nion, eta halaxe hasi zen umeak jantzen. Denon artean joaten



gara osagarriak lortzen eta jantziak osatzen, eta Maitek ere egiten ditu eskulanak".

Zazpi urtetan, bi lagun ar- tean, hamar jantzi osatzea lor- tu dute, hala nola Harkaitza, Arauntza, Loiolatxo, Izarraitx Txoko edota Ardozaleak tal- deetakoak. Jantziak janzteko ilusioa bai, baina kentzeko la- nak ere izaten dituztela aitortu du Zabartek, umek ez baitute nahi izaten horiek kentzerik. "Egun osoan izaten dituzte jan-

tzita, eta ez diete molestatzononbait; ez dute nahi izaten kentzerik. Pentsa, lo ere jantzi horiekin egin nahi izaten dute batzuetan. Ikargarria da. Fes- ta 24 ordukoa izaten bada ere, guk asko luzatzen dugu, entse- gu guztietara ere joaten gara eta", adierazi du.

Aurtengo jantzien prestake- tak martxan ditu dagoeneko, nahiz eta seme zaharrena jan- tzi edo ez zalantzati dagoen. Amak, ordea, azkenean jan- tziko dela uste du: "Azken ur- tea izan behar baldin badu ere, jantziko dela uste dut. Ziurre- nik pilotariz, asko gustatzen baitzaio pilota". Alabek, aldiz, kantine eta banderadun jan- tziak eskatu dituzte aurrean ere. Eta orain arte egindako jan- tziak ere kalean ikusteko auke- ra izango dute herriarrek; izan ere, hainbat laguni utzi dizkie horiek, aprobeztatu ahal izate- ko.

Festa iristeko egun gutxiren faltan, prestaketa lanetan bu- ru-belarri da familia. "Bene- tako lanak amak hartzen ditu, meritu guztia berea da. Ordu asko igarotzen ditu prestatzen, detaile ugari izaten ditu kon- tuan, eta ondorioz, guk egiten duguna amaren lanaren osa- garria da. Izan ere, berak ez balu hartzen duen lan guztia hartuko, ez gukeen gauzatu jantzien bueltan egiten dugun erokeria", gaineratu du.

Sansebastianak dira Zabar- teren familiaren festa gustu- koenak, eta gauzak aldatzen ez badira behintzat, jaiez orain arteko gisan gozatzen jarraitu- ko dute. "Zaila ikusten dut ohi- tura galtzea; izan ere, ama sal- bu, etxeko guztiok irteten gara danborradan. Seme-alabak haztean desberdina izango da guztia, baina beste modu batera bada ere, ziur nago sansebastia- nez gogotik gozatuko dutela".

Urte gutxira Maite Azkue laguna eta haren haurrak ere ohiturara batu ziren

«Bezperan goizeko 05:00etan erretiratu bagara ere, 09:40ean kalean egoten gara»

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Euskal Herria Kalea, 33
943-08 00 89

DTM

Marka guztien konponketa eta mantentze lanak egiten ditugu, bereziki, BMW eta auto alemaniarretan

Formakuntza jarraian, eta erremintarik aurreratuenekin

Ondo pasau sansebastianak!

Urola kalea, 6 • AZPEITIA

☎ 943-15 12 60 ☎ 604 24 55 83

dtm@dtmloigar.com

Loiolako Ignazio Hiribidea, 13 beheak
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 15 11 • 609 479 273
cmazpiazu@agencia.axa-seguros.es



asegururak / berrasmatzen

ondo pasau sansebastianak!

Tien21ESNAOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Denda
Pablo VI, 3 • Tel. 943-08 03 55
esnaelek@outlook.com

Lantegia
Orendaundi, 6 (Landeta)
Tel. 943-15 09 02 • esnaolatelecom@telefonica.net



Ondo pasau sansebastianak!

Iberotarren plaza 7 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 05 09 • ob@asesoriaob.eus

GUKA KIDE

abantailak



Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.



Argitalpenak digitalki eskuragarri.



Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.



Zozketak eta lehiaketak.



Deskontu sarea.



Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.

Egin zaitez GUKAKIDE

egunkaria
paperean

95€
URTEAN

aldizkaria
paperean

60€
URTEAN



digitala

52€ URTEAN

Papereko eskaintzek digitala barne dute.

LEHIAKETA

GUKAKIDEENTZAT

**Zenbat dakizu
aurtengo
sansebastianeiei buruz?**



**Parte hartu 2026ko sansebastianen
inguruko galdera-erantzunen jolasean,
eta irabazi arrainez eta itsaskiz osaturiko
otarre ederra.**



**Adi! Ondo irakurri gehigarria, bertan topatuko
dituzu eta galdera guztien erantzunak.**

Eskaneatu QRa eta
parte hartu lehiaketan




HOTEL LOIOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
Loiolako Inazio hiribidea, 47 • Azpeitia • 943-15 16 16
loiola@hotelloiola.com • www.hotelloiola.com


villegas larrea
arraindegia
943-81 68 91
Enparan, 29 • AZPEITIA
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

ERROTAUNDI
Okindegia
ondo pasau sansebastianak!
Euskal Herria Kalea, 34 • 943-81 61 79

mov:|tek
Zerbitzu Teknikoa
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
Jose Artetxe, 8 beheak | Azpeitia | 943-81 22 31
www.moviltek.net


JATETXEA
LANDETA
SAGARDOTEGIA
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
Tel.: 943 81 09 59 • Landeta Auzoa, 12 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



Iritzia
Jexu Mujika

Hogei, ez da zenbaki hutsa

2026koa ez da beste urte bat izango Oilo-Soro danbor taldearentzat. Hogeigarren danborrada izango dugu lehen aldiz kalera ateraginetik, 2004an irten genuen lehenbizikoz. Urteurrenek badute berezitasun bat: atzera begiratzera, eta, aldi berean, aurrera proiektatzera behartzen gaituzte. Guretzat, hogeigarrena emozioz betea izango da, gogoangarria, eta, beti bezala, festaz gozatu eta ondo pasatzeko unea.

Urtez urte, Azpeitiko danborrada bera bezain bizi sentitu dugu gure taldea. Festak izan duen bilakaera bi hitzetan laburbildu daiteke: gaztea eta emakumea. Danborrada nabarmen gaztetu da, eta emakumeen parte hartzea ikaragarri handitu. Horrek erakusten du Azpeitiko danbor festa osasuntsu dagoela; sustraituta baina

etengabe berritzen. Tradizioa ez da geldirik egotea, bizirik irauteko moldatzea da.

Oilo-Soro ez da joera horretatik kanpo geratu. Azken urteetan belaunaldien arteko erreleboa argi sumatzen ari gara: 2004an taldea osatu genuen seme-alabak ari dira lekua hartzen. Gazteak barrura, danborra hartzera; eta ez hain gazteak kalera, ikusle,

Gazteak barrura, danborra hartzera; eta ez hain gazteak kalera, gozatzera

gozatzera. Eta urtero gero eta gehiago. Hori da, agian, edozein kultur elkartek izan dezakeen albisterik onena.

Hala ere, oraindik bagara danborra jotzeari tinko eusten diogun batzuk. Ez temakeriaz, baizik eta sentimenduz, badakigulako zer den barrutik bizitzea gau berezi hori.

Taldeko zuzendari ohiak, egun danbor jotzailea den Jon Galdosek, erronka bota du: 2031n, 25. irteeran, gazteek bereganatu dituzten danborrak berreskuratu eta talde originala berriz kalera irtetea. Ideia hutsa baino, transmisioaren sinbolo ederra izan daiteke.

Eta ezin amaitu lehen talde hartakoak ziren baina gaur gurekin ez daudenak gogoratu gabe: Santxo, Pipillo, Zaldie... eta aurtun, bereziki, Xabier. Mila musu eta besarkada. Urteroko danbor arradak zuei eskainiak izango dira. Danborradak jarraitu egiten duela, baina memoriarik gabe ez lukeelako zentzurik izango.

Danbor arrada ozenenaren txanda

Bi elkarte berri batuko dira aurtun helduen danborradara: Iturri eta Vivero. Guztira, beraz, 33 talde ariko dira danborrak eta barrikak astintzen.

Lehertzeaz da 24 orduko festa. Astelehen gauean hasi eta astearte iluntzera arte danbor hotsa izango da nagusi herriko kaleetan. Guztira, 1.700 herritar baino gehiagok parte hartuko dute aurtengo San Sebastian bezperako helduen desfilean, 33 taldetan banatuta. Bi talde berri batu dira, izan ere, festara: Iturri eta Vivero. Beraz, inoiz entzun den danbor arra-

da ozenena izango da astelehen iluntzean Azpeitian.

Urtero legez, 22:00etan hasiko da helduen danborrada. Goiko Kaletik eta plazatik behera, Done Jakue kalera iritsiko dira taldeak, eta handik Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara eta Perez Arregi plazara. Bi leku horietan direla joko dute aurreneko aldiz *San Sebastian martxa*. Gaueko lehen geldialdiaren ondoren, Elizkaletik, Plaza Txikitik eta Enparan kaletik pasatu, eta

Perez Arregitik barrena, Erdikalean gora igoko dira taldeak plazara iristeko.

Talde guztiak plazan direla eta gauerdiko kanpaiekin batera igoko dute herriko bandera udaletxeko balkoian. Bandera igo ostean, Irrintzi taldeak dagokion omenaldia jasoko du udaletxean, aurtun 50 urte beteko dituelako danborradan.

Gukan, zuzenean

Helduen danborradaren bueltako saioa egingo du Gukak



Iritzia
Maite Bereziartua

Gauza txiki handiak

Badatoz sansebastianak, egun gutxiren buruan danbor hotsez beteko zaigu herria. Festa "ederrak" eta "handiak" dira sansebastianak. Baina festetako momentu guztiak ote dira ba "ederrak" eta "handiak"?

Ez dut gezurrik esango: niri sansebastianak "ederrak" eta "handiak" iruditzen zaizkit. Urtarrilaren 19an, 22:00etan, edo 20an, 12:30ean, priiiiiiii jo eta *Hau dek hau* abestia hasten denean, parroikia parean *San Sebastian Martxa* edo *Soreasuko Sebastian* entzutean, gauerdiko kanpaiak herriko Enparantza Nagusian... Bai, momentu bereziak, sabelean tximeletak dantzan jartzen dituzten horietakoak. Baina, nire barruan, ez dut uste horiek direnik festa benera "eder" edo "handi" egiten duten momentuak.

Aurretik badaude hainbat momentu, txikiak eta ezkutukoak agian, megafoniarik gabeak, fokoen argipean ez daudenak. Baina horiek gabe, festarik ez. Prestaketez ari naiz.

Asko eta asko dira danbo-

rradako taldearen gerizpean atera arren, beren arropen jabe direnak; norbere arropa, norbere danborra. Ziur arropa eta danbor horiek beti ganbarako leku berean hartzen dutela hautsa urte guztian zehar. Hori helduen danborradako partaide askoren errealitatea da. Baina helduen danborradako talderen baten eta haurren danborradako talde guztien errealitatea oso bestelakoa da. Danbor jotzaileen arropak zaindu, kantinerenak eta ban-deradunenak, gastadoreenak, zuzendarienak, askatutako botoiak josi, handiegi dauden txaketak estutu, txikiiegi dituz-

Aurretik badaude hainbat momentu, txikiak eta ezkutukoak agian

ten galtzak zabaldu, txapelak eta danborrak gorde, hautsi-tako danborrak konpontzera eramane, partaideak kudeatu, ile apaindegiko hitzordua hartu... Amaiera urrun izango lukeen zerrenda... Sansebas-

tianetarako dena prest izatearen ardura batzorde baten esku egon ohi da. Horienak dira lehen aipaturiko ezkutuko momentu txikiak, megafoniarik gabeak eta fokoen argipetik urrun, ondoren festa handi izatea ahalbidetuko duten mugimendu txikiak: bilerak, eskaerak, erosketak, konponketak, moldaketak... Une gazi ugari, baita gozoak ere.

Une guztiak jomuga batekin: sansebastianak. Hor amaitzen da urteko ibilbidea, berriz hurrengo jomugari begira jartzeko.

Ez dakit zoriz ala hala-beharrez, baina festa egunera bidean dauden ezkutuko momentu txiki horiek gertutik ikustea ere egokitu zait. Horregatik esan dezaket festa "eder" eta "handi" egiten dutenak ezkutuko momentu txikiak direla, momentu txiki horiek gabe ez genituzkeelako urtarrilaren 19an, 22:00etan, edo 20an, 12:30ean, priiiiiiii jo eta *Hau dek hau* abestia entzungo, ezta parroikia parean *San Sebastian Martxa* eta *Soreasuko Sebastian* edo gauerdiko kanpaiak herriko Enparantza Nagusian ere, ez behintzat modu berean.

San Sebastian bezperan. Gukaren Azpeitiko webgunean -azpeitiaguka.eus- eta Guka telebistan ikusi ahalko da danborradaren bueltako saio berezia. 21:30 aldean hasiko da eman-kizuna, sansebastianen bueltako hainbat erreportajekin. Jarraian, Nerea Arakistain eta Iñaki Odriozola kazetariak gidatutako zuzeneko saioa izango da, eta bi aurkezleekin hizketan izango dira hainbat gonbidatu; besteak beste, zuzeneko saioan parte hartuko dute Nagore Alkorta alkateak, Mikel Odriozola Festa batzordeburuak zein umeen danborradako karroza egiteaz arduratuko diren Arte eta Diseinu Ikastegiko arduradunak. Gainera, danborradako zuzeneko irudiez gain, partaideen hainbat hizketaldi ere jasoko dituzte plazan Gukako kazetariak.



Plaza nagusia 11 • AZPEITIA • 688 68 86 96 • info@elikagunea.eus
www.elikagunea.eus



Jose Artetxe, 5 • 943-02 59 55 • 625 19 58 85

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

EMAN KOLOREA SANSEBASTIANE!

Salbe Auzunea 35 behea
20730 AZPEITIA • 943-81 57 81
info@urbistondomargoak.com



GOZAU SANSEBASTIANAK!

EGAÑA
AZPEITIA | 1902



GOIKO-KALE, 10 • 943-81 18 85 • LANDETA HIRIBIDEA, 19 • 943-81 50 09
www.eganagozotegia.com



Urbitearte, 1 behea 943-81 11 79 • linterneria@alabier.com



18

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**

JANTZIEN INFORMAZIOA, SORRERA URTEA ETA JOTZEN DUTEN DANBOR MOTA



OÑATZBIDEKO GASTADOREAK

Sorrera: **1959. urtea.**
Txapa.



IRRINTZI

Sorrera: **1975. urtea.**
Danborra.



TXALINTXO

Sorrera: **1979. urtea.**
Txapa.



ARAUNTZA

Sorrera: **1970. urtea.**
Danborra.



SANJUANDEGI

Sorrera: **1992. urtea.**
Txapa.



IZARRAITZ TXOKO

Sorrera: **2007. urtea.**
Danborra.



ZOKOA

Sorrera: **1992. urtea.**
Danborra.



BASAZABAL

Sorrera: **2008. urtea.**
Txapa.



ZIRIPOT

Sorrera: **2008. urtea.**
Danborra.



LANDETA-EGIZALE

Sorrera: **1966. urtea.**
Txapa.



ALKARTASUNA

Sorrera: **1967. urtea.**
Danborra.



OLLAGORRA

Sorrera: **2011. urtea.**
Txapa.



LOIOLABIDE ZAHAR

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra.



ZULOZABAL

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra.



LOIOLATXO

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra eta txapa.



ITSASI

Sorrera: **1984. urtea.**
Danborra eta txapa.



HARKAITZA

Sorrera: **1979. urtea.**
Danborra.



ETXERA

Sorrera: **1981. urtea.**
Txapa.



ARRANTZALEAK

Sorrera: **1969. urtea.**
Danborra.



GURE AMETSA

Sorrera: **1966. urtea.**
Txapa.



ARDOZALEAK

Sorrera: **1971. urtea.**
Danborra.



IRAURGISB

Sorrera: **2004. urtea.**
Danborra.



MENDIZALEAK

Sorrera: **1974. urtea.**
Txapa.



BARRATSU

Sorrera: **1981. urtea.**
Danborra.



ZEZENZALEAK

Sorrera: **1967. urtea.**
Txapa.



JULIAN BARRENETXEA

Sorrera: **2002. urtea.**
Danborra.



ILUNPE

Sorrera: **2020. urtea.**
Txapa.



INPERNUE

Sorrera: **2020. urtea.**
Danborra.



IZARRAITZPE

Sorrera: **2020. urtea.**
Txapa.



OILO-SORO

Sorrera: **2004. urtea.**
Txapa.



PERDILLEGI

Sorrera: **2025. urtea.**
Danborra.



ITURRI

Sorrera: **2026. urtea.**
Txapa.



VIVERO

Sorrera: **2026. urtea.**
Danborra.

PARROKIAN


Danbor taldeen irteera hurrenkera:

1.- Gastadoreak	18.- Izarraitzpe
2.- Loiolabide Zahar	19.- Perdillegi
3.- Zulozabal	20.- Iturri
4.- Loiolatxo	21.- Vivero
5.- Itsasi	22.- Oilo-Soro
6.- Harkaitza	23.- Irrintzi
7.- Etxera	24.- Txalintxo
8.- Arrantzaleak	25.- Arauntza
9.- Gure Ametsa	26.- Sanjuandegi
10.- Ardozaleak	27.- Izarraitz Txoko
11.- Iraurgi SB	28.- Zokoa
12.- Mendizaleak	29.- Basazabal
13.- Barratsu	30.- Ziripot
14.- Zezenzaleak	31.- Landeta-Egizale
15.- Barrenetxea	32.- Alkartasuna
16.- Ilunpe	33.- Ollagorra
17.- Inpernue	

1.- Gastadoreak	18.- Izarraitzpe
2.- Loiolabide Zahar	19.- Perdillegi
3.- Zulozabal	20.- Iturri
4.- Loiolatxo	21.- Vivero
5.- Itsasi	22.- Oilo-Soro
6.- Harkaitza	23.- Irrintzi
7.- Etxera	24.- Txalintxo
8.- Arrantzaleak	25.- Arauntza
9.- Gure Ametsa	26.- Sanjuandegi
10.- Ardozaleak	27.- Izarraitz Txoko
11.- Iraurgi SB	28.- Zokoa
12.- Mendizaleak	29.- Basazabal
13.- Barratsu	30.- Ziripot
14.- Zezenzaleak	31.- Landeta-Egizale
15.- Barrenetxea	32.- Alkartasuna
16.- Ilunpe	33.- Ollagorra
17.- Inpernue	

- | | |
|----------------------|----------------------|
| 1.- Gastadoreak | 18.- Izarraitzpe |
| 2.- Loiolabide Zahar | 19.- Perdillegi |
| 3.- Zulozabal | 20.- Iturri |
| 4.- Loiolatxo | 21.- Vivero |
| 5.- Itsasi | 22.- Oilo-Soro |
| 6.- Harkaitza | 23.- Irrintzi |
| 7.- Etxera | 24.- Txalintxo |
| 8.- Arrantzaleak | 25.- Arauntza |
| 9.- Gure Ametsa | 26.- Sanjuandegi |
| 10.- Ardozaleak | 27.- Izarraitz Txoko |
| 11.- Iraurgi SB | 28.- Zokoa |
| 12.- Mendizaleak | 29.- Basazabal |
| 13.- Barratsu | 30.- Ziripot |
| 14.- Zezenzaleak | 31.- Landeta-Egizale |
| 15.- Barrenetxea | 32.- Alkartasuna |
| 16.- Ilunpe | 33.- Ollagorra |
| 17.- Inpernue | |

HERRIKO PLAZAN





22

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**



Ezkerrean, Vivero taldearen jantzia, eta eskuinean, Iturri taldearena. Talde horien jantziekin egindako muntaia da hau.

AD
ALKIDEBA

**irtenbideak
alokatzen
ditugu**

Mallabia 943-17 13 62
Soraluze 943-75 15 54
Azpeitia 943-07 02 53



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK

Iturri eta Vivero batuta, 33 taldera iritsiko da helduen danborrada

Sanjuandegiko bi talde berri batuko dira aurtengo helduen danborradara, eta inoizko jendetsuena bilakatuko da festa. Xehetasun guztiak prest izateko denbora luzez lan gogorra egin ondoren, San Sebastian bezperarako gogoz dira bi taldeak.

AUTOESKOLA UROLA PSIKOTEKNIKOA



- ✓ Baimenak:
- AM
 - A1
 - A2
 - A
 - B
 - B+E
 - C
 - C+E
 - D

- CAP kurtsoak
- ADR kurtsoak

Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

- Gidabaimenak
- Arnak
- Nautika
- Txakur arriskutsuak
- Kirol ziurtagiriak



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

943-81 26 66 • Bustinzuriko Errebala, 3 atzea • urolaonline@hotmail.com 943-81 35 06 • Hartzubia, 31 behea • aurolapsikoteknikoa@outlook.com
AZPEITIA • www.urolaautoeskola.com

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Julian Elortza Hiribidea
AZPEITIA
943-15 63 27

ETXE ZYRI TABERNA ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Perez Arregi Plaza - Azpeitia
943-02 68 56



makibar
ondo pasau
sansebastianak!

Euskal Herria Kalea 31 • 943 08 06 00

REFORMAS EUGENIO



672 60 06 06 Eugenio

www.reformaseugenio.com

Ondo pasau sansebastianak!



Zeramikaren boutikea

DECO-RAMIK
ondo pasau sansebastianak!

www.decoramik.com decoramik_
Loiolako Inazio Hiribidea 2, Azpeitia
943-81 48 22 • decoramik@decoramik.com

Azulejoak
Bainuko altzariak
Bainuko osagarriak



24

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a GUKA

Urteztar urte, eta poliki-poliki, Azpeitiko danborrada eten-gabe haziz doa. Etenik ez duen ur jauziaren emariaren gisan, talde berriak danbor festara batzen joan dira azken urteetan. Azken bi urteetan, adibidez, hiru talde gehiago izatera iritsi da helduen danborrada: iaz Perdilegi taldea batu zen, eta aurten, Iturri eta Vivero elkar-teei emango diete ongietorria. Batak zein besteak azken urtean egindako lana garrantzitsua izan da, eta San Sebastian bezperako danborradan, gozatea besterik ez dute espero.

Azpeitiko elkarte zaharrene-takoa den arren -1978. urtean sortu zen soziedadea-, aurten estreinatuko da danborradan Iturri. Elkarteko gazteen ekimenez sortu dutela danbor taldea jakinarazi dute soziedadeko kideek. «Bazkide zaharren seme-alabek jarri dute mahai gainean gaia. Txikitatik elkar-tearen bueltan ibili garenok beti galdetu dugun zerbait izan arren, ez da inoiz planteatu; izan ere, lan gehiegi zela esaten ziguten gurasoek. Baina, orain, gazteek inizatiba hartu dute, eta gaia landu ondoren, aurrera egitea erabaki dugu», azaldu du Ainara Betegi Iturriko kideak.

Idea mahai gainean jarri zutenean, «egingarria» zela ikusi zuten, eta, beraz, aurrera egitea erabaki. Hala, iazko urtarrilean jarri zuten abian prozesua, eta otsailaren 1era-ko eskaera sartuta zuten uda-letxean. Azkar egin zituzten gauzak. Aitzol Kortajarena elkarteko kideak adierazi du proposamenak harrera «oso positiboa» izan zuela elkarteko kideen artean, eta ondorioz, lehen pauso horiek «azkarra-go» emateko aukera izan zutela.

Udalaren baiezkoa esku artean izan zutenean, elkarteko batzarra deitu zuten, eta bertan osatu zuten danborradako zuzendaritza. Talde hori izan da prozesu guztia aurrera eramateko ardura izan duena.

Udalera aurkeztu beharreko proiektuan, danborradan erabiliko duten jantzitegiaren azalpenak zehaztu behar izaten direla azaldu du Ander Urbietak taldekideak. Iturriren kasuan, elkar-tearen izena ezin zuten albo batera utzi eta, beraz, iturriak zeresan handia izan du jantziak sortzerakoan. «Baserri lurretan eraikitako elkartea da Iturri, eta hori jakinda, jarraitu behar genuen bidea garbi izan dugu hasieratik; baserritarra nola joaten zen ur bila irudikatu nahi izan dugu. Horri omenalditxo egin nahi izan diogu», adierazi du Urbietak.

Idea hori argi izanda, azterketa lanetan hasi ziren. «Ez genuen ohiko baserritar jantzia izatea nahi», dio Urbietak, eta horrela, XIX. mendean kalean bizi ziren herritarren jantzi-tara iritsi ziren. «Liburutegiko liburuen eta argazkien artean murgildu ginen. Emakumeen jantziak ur bila joaten zirenen jantzian oinarritzen dira, eta gizonezkoenak, berriz, kaleko jantzian. Baratzeko jantziak alde batera utzi genituen, eta kalekoak hartu ditugu oinarritzat», azaldu du Betegik. Hala, gizonen eta emakumeen jantziak erabakita, bozketa egin zuten elkarteko kideen artean, bietako bat hautatzeko, eta gizonezkoena izan zen aukeratua. Talde osoa gizonezkoen jantziarekin irtengo da, beraz.

Kantineren eta banderadunaren jantziak emakumezkoenak diren arren, gizonezkoren batek irten nahiko balu, badu egokitutako jantzia. «Jantzi desberdinak egin ditugu. Hau da, zuzendarientzat bi jantzi ditugu, emakumezkoarena eta gizonezkoarena, eta kantinera gizonezkoren batek irten nahiko balu, jantzia izango luke».

Jantzia osatzeko, eta barrika jotzea egokitu zaienez, danborrari ferreta -ur bila joateko ontzia- forma eman diote; «kupel ukitua» ere badu, ordea, «burdinezko aroak dituelako».

Hori bai, baserritar onak bezala, zero kilometro kontzeptua jarraitu dute jantziak

osatzeko orduan. Danborrak Oriyok egin ditu, jantziak Sanjuandegiko Urkizu dendarekin egin dituzte, eta osagarriak eta jostun lanak, berriz, Kotoi mertzerian. Zero kilometroren ideia borobiltzeko, zuzendarien makilak elkarteko kide batek egin ditu. «Bi zuzendari izango ditugu, biak helduak. Zuzendari izateko ardura ez da arinkeriaz hartu daitekeen zerbait, eta zuzendari bakarra izanez gero, edozer gauza gertatuta ere, ez da egun batetik bestera ikas daitekeen lana. Talde osoaren adostasunez, bi zuzendari izatea erabaki genuen. Modu horretan, gainera, elkar lagundu daitezke», adierazi dute.

Egindako lan guztia gutxi ez balitz, bandera sortu behar zutenean ohartu ziren elkar-teak ez zuela logotiporik. «Ezuste-koari» buelta eman ziotenean, lanean hasi ziren; zigilu zahar batzuk aurkitu zituzten, eta horietan oinarrituta sortu dute logo berria: «Iturri izena agertzen zen, baina antzinako moduan idatzita; r batekin. Hortik abiatuta, eta sormen pixka batekin, hala nola atera dugu irudia». Irudia sortuta, banderari txertatu dute, eta Azpeitiko kaleetan ikusgai izango da San Sebastian bezperan.

Urtarrilaren 19a iristeko go-goiz daudela diote Iturriko hiru kideek. Ez dakite zer espero dezaketen egunaz, baina «ilusioz eta gogotsu» daude, aurrez egindako lan guztiaren emaitza erakutsi eta esperientziak gozatzeko.

Elkartean bertan afalduko du taldeak, baina, lehenbiziko urtea izanik, catering zerbitzua kontratatatu dute. Garaiz ibili beharko dute egun horretan, jakitun baitira 22:00etarako prest egon nahi badute, goiz atera beharko direla elkartetik. «Baina gure asmoa zein den argi dugu: lagunartean afaltzea eta ondo pasatzea!».

Vivero, urteurrenean

Aurtengo danborradako bigarren talde berria Sanjuandegiko Vivero elkartea da. Ez dute edozein data aukeratu estrei-

naldirako; izan ere, elkartearen 50. urteurrena ospatuko du Viverok 2026an. Kasualitatea handia da, data nahita ez dutela aukeratu baitiote; «horrela egokitu da, besterik ez».

Duela urtebete ekin zioten danborradako talde izateko bideari; donostiar baten eskutik, gainera. Viveroko bazkide egin zen duela urtebete inguru, eta iazko San Sebastian festak amaitu ostean, danborradako taldea sortzeko ideia plazaratu zuten: «Bazkari baten ondoren hitz egin zuen, ordea, eta horrelakoetan oso ideia sendoa ez ote denaren susmoa izaten denez, astebetera galdetu nion nahi horrekin jarraitzen al zuen. Baietz erantzun zidanean, martxan jartzea erabaki nuen», azaldu du Angel Etxabe bazkideak.

Elkarteko kideei helarazi zieten proposamena, eta «harre-ra oso ona» izan zuela ikusirik –35 bazkideetatik 20 kide batu ziren, eta familiakoekin, erraz osatu dute 40ko konpainia–, udalera jo zuten. Han hilabete-ko epea eman zieten txostena aurkezteko, eta buru-belarri murgildu ziren egin beharreko zereginetan.

Elkartean bost laguneko taldea osatu zuten danborradaz arduratze, eta txostena egiteaz gain, jantzia ere pentsatu zuen taldeak. Hiru proposamen egin zizkion taldeak elkarteari: «Argi genuen soldadu jantzia nahi genuela, eta Azpeitiko Izarraizpe eskola publikoko napoleoi urdinaren jantzia gustatzen zitzaigun. Oinarri gisa hori hartu badugu ere, aldaketak egin dizkiogu jakari. Jantzi horixe izan zen bozkatuena», jakinarazi du Etxabek. Prozesua, beraz, «az-

kar eta ondo» egin dutela uste du hark. Lana, «asko, gainera» egin ondoren, ordea, Etxabe ez da danborradan aterako: «Emazteagatik egin dut batik bat, beti irteteko gogoz zegoen eta. Semea ere irtengo da, eta nik hesiaren atzetik ikusiko ditut aurten».

Oikiarra (Zumaia, Gipuzkoa) da Etxabe, eta Elgoibarkoa (Gipuzkoa), berriz, Amaia de Castrok. «Ez dakit nola okurritu zitzaidan senarrari esatea polita izan zitekeela zuzendari irtetea. Asmorik gabe esan nuen, baina inor ez zenez zuzendari izateko aurkeztu, han joango naiz taldea zuzentzen; azpeitiarra ez den eta danborradan inoiz irten gabeko pertsona bat».

«Oso urduri» dagoela onartu du De Castrok, baina bere lana ahalik eta ondoen egiteko grianaz lanean dihardu «jo eta su, gelditu gabe», azarotik. «Zor-tea» izan duela dio, asko lagundu diotelako bazkideek eta Unai Frantsesena Udal Musika Bandako zuzendariak. «Hala ere, bideo pila bat ikusi ditut, apunteak hartu ditut, musika entzun eta entzun nabil... Talde barruko entseguak egin ditugu, baina desberdina da jende aurrean aritzea». Taldea «oso-oso ondo» daramala baieztatu du Etxabek.

Viverokoak ere danborradako eguna iristeko gogoz daude. Antolatu dute eguna, eta taldeko argazkia aterako dute lehenbizi. «Oso garaiz» afalduko dute, eta 21:00etan Jose Antonio Agirre plazara abiatuko dira, Sanjuandegiko gainontzeko taldeekin batera danborrada txiki bat eskaintzeko han. 22:00etan, prest izango dira San Martin goitzaren aurrean.

«Lasai eta ondo joan dadila, eta ea gozatzea lortzen dugun. Baina, batik bat, taldea bera egitea tokatzen zaigula esango nuke. Azkenean, Azpeitiko danborradako gainontzeko taldeekin irten diren kide ugari ditugu, baita bazkide ez direnak ere, eta elkar ez gara eza gutzen. Une ona da elkar goxatzen hasteko», adierazi du De Castrok. «Dena ondo joango denaren zalantzarik ez dut. Ez dugu aparteko ezer eskatzen, danborra ondo jo eta ondo pasatzea, festak eta danborrada horretarako dira eta!», amaitu du Etxabek.

Denentzat tokia

Aurtengo danborradan bi talde berri izango diren berria zabaldu denean, bat-batean galdera hau egin dute hainbat herritarrek: «Sartzen al dira ba denak plazan?». Udalak, ordea, egin ditu beharrezko neurketak, eta danborradako talde guztiak, bi talde berriak barne, plazan izango dira gauerdian. Hala baieztatu du Mikel Odriozola Festa batzordeburuak: «Azkenean, aldaketa txiki bat izango da, eta plazan, azken ilaran izaten diren taldeak Azoka Plazara gehiago hurbildu beharko dira, besterik ez».

Ibilbideko beste geldialdian, parrokiaren aurrean, aldiz, errazagoa izan da taldeei lekua egitea; garbitokiaren ertzean jarriko da talde bat, errepidea hirutan banatzen den lekuan, eta beste taldea, berriz, parrokiako sakristiaren aurrean. Hala ere, hartutako erabakiak ez dira finkoak: «Probatu egingo dugu, eta hurrengo urtera begira, balorazioa egin ondoren hartuko da azken erabakia».

main
tabernakoen partetik,
ondo pasau
sansebastianak!

Eliz kale 5, behea - AZPEITIA - 943-88 78 56

• TABERNA •
BORDATXO
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Landeta Auzoa • 20730 AZPEITIA • 943-81 20 27

JON ESNAOLA
ARKITEKTO TEKNIKO
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Jose Artetxe 6-behea • Azpeitia, Gipuzkoa
info@jonesnaola.eus • M. 647 65 45 06

J.B. San Sebastian Harategia

Tel.: 943-81 15 94 - Foru Ibilbidea, 4. AZPEITIA.
Bertako haragi eta urdaikiak. Etxean aurrez prestaturiko jakiak.

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

ETXE-AIZ
etxegintza, s.l.

Julian Elorza Hiribidea, 3 behea
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 76 99
627 44 19 00
etxeaiz@hotmail.com

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

SANSEBASTIANAK
2026

JARRAIPEN BEREZIA **GUKA**

Zuzeneko saio berezia, astelehenean,
San Sebastian bezperan, 22:00etan hasita.

**Guka telebistan eta
azpeitiaguka.eus atarian**



Badatoz danbor-hotsak! Badatoz SSak!

- Azal zurikoa eta familia onekoa zara?
- Azpeitiano peto-petoa eta festazalea?
- Jatorra, zintzoa eta pittin bat klasista?
- Leiala, apala eta pixka bat xenofoboa?
- Migranterik gabeko helduen danbor talde batean parte hartzen duzu?




Etorki(zu)na duen herria da danbor burrunba beroak besarkatzen duena



28

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**



KELEN

- BERRIKUNTZAK - ITURGINTZA - GASA ETA BEROKUNTZA - KLIMATIZAZIOA - AEROTERMIA - GREMIOEN KOORDINAKETA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

📍 ARANA KALEA 5, Azpeitia ☎ 631 94 73 05





"Gure trena", berriro jende artean

2026an ehun urte beteko dira Urolako trena martxan jarri zutenetik, eta urtemuga hori tarteko, horixe da San Sebastian eguneko haurren danborradan aterako duten karrozaren gaia: Urolako trena. Proiektu horren inguruan hitz egin dute Arte eta Diseinu Ikastegiko irakasleek, Juanjo Olaizolak eta Fermin Lasak.


Duela ehun urte, 1926an, egin zuen aurreneko bidaia gerora bailarako herritar askoren ohiko garraibide bilakatuko zen Urolako trenak. Azpeititik Zumaiara, handik Zumarragara... joan-etorri ugari

egin zituen trenak urteetan, eta bidaia horien aitzakian istorio asko gorde ere bai tren historikoak. Duela 40 urte egin zuen azken joan-etorria trenak, eta gaur egun museo bilakatuta daude haren arrastoak Azpeitian; Burdinbidearen Euskal Museoan aurki daiteke garraibide hari lotutako informazio

guztia. Geldirik dago trena, baina haren memoriak bizirik jarraitzen du. Eta hala jarraituko du San Sebastian egunez ere.

Izan ere, otsailean beteko dira ehun urte trena inauguratu zutenetik, eta urtemuga hori tarteko, horixe izango da San Sebastian eguneko haurren danborradan aterako duten

dica
sukaldeak



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

fama
SOFAK

ondo pasau sansebastianak

www.urrategiinteriorismo.com • Azpeitia Arretxe 9 Eibar Arragueta 27





Urolako tren zaharra, Azpeitiko museoan.

karrozaren gaia: Urolako tren. Aurrenekoz, Arte eta Diseinu Ikastegiko (ADI) irakasleek gauzatuko dute karroza, eta haiek adierazi dute pozez daudela. Fermin Lasa treneko azkenetako langilea eta Juanjo Olaizola Burdinbidearen Euskal Museoko zuzendaria ere ezin gusturago daude karrozan hain maitea zuten tren hura irudikatuko dutelako.

ADI, aurreneko aldiz

Mikel Sanjuan ADIko irakasleak adierazi duenez, iaz aurkeztu zuten aurrenekoz sansebastianetako karroza lehiaketara proiektua, baina ez zuten irabazi. Aurten berriro animatu dira, eta beren egitasmoa aukeratu dute. "Sekulako poza hartu genuen irabazleak ginela jakitean. Oso-oso gustura gau-

de. Lan handia izango da, baina egingo dugu", esan du.

Miriam Quintana ikastegiko irakasleak jakinarazi du hiru lagunak artean egingo dutela karroza; hau da, ADIren ardura duten hiru irakasleek gauzatuko dute: Quintanak berak, Sanjuanek eta Beatriz Pozok. Pozo batez ere planoez, neurriez eta halako kontuez arduratu da, eta Sanjuan eta Quintana, berriz, dekorazioaz, margotzeaz eta abar. Hori bai, zenbait profesionalen laguntza ere izango dute. "Arotz kontuetan Eitenek lagunduko digu, eta margo-tzerakoan, berriz, Urbistondo-koak izango ditugu ondo".

Karrozaren xehetasunak ezin izaten dira gehiegi iragarri, sorpresak ere bere lekua izan dezan San Sebastian egunez. Dena den, Quintanak haren zenbait

ezaugarri aurreratu ditu: "Karrozan Urolako trenaren jatorria islatzea nahi dugu, baita bere ibilbidea nolakoa izan zen erakustea ere. Hori da gure ideia. Seguru polita geldituko dela", azaldu du. Burua gora eta behera mugituz nahiz irribarre eginez, halaxe izango dela baieztatu du Pozok ere.

Une honetan, bi proiektu po-

Karrozan Urolako trenaren jatorria islatzea nahi dute ADIko irakasleek

Treneko azken langileetakoa izan zen Lasa, eta zirrara eragin dio kontuak

tolo dituzte esku artean ADIkoek: Egurnika eta karroza. Ez dute atseden hartzeko denbora askorik izango 2026. urtean, baina gogoz heldu diote erronkari: "Dena batera iritsi da, baina pozik gaude", nabarmendu dute.

"Oroitzapen politak"

Urolako treneko azken langileetakoa izan zen Fermin Lasa, eta zirrara eragin dio hari karrozaren kontuak. Orduan "makinista" esaten zitzaion bere ogibideari. "Gaur egun gidaria esaten da, baina ni treneko makinista nintzen". Zazpi urtez aritu zen lan horretan. "Zumaiatik Zumarragara arteko bidea egiten genuen: goizean Azpeititik irteten genuen; lehendabizi Azkoitira joaten ginen, eta handik Zumaiara.

Azpeititik beste tren bat irteten zen Zumarragara, eta horrela ibiltzen ginen, gelditu ere egin gabe, gora eta behera", gogoratu du.

Gustuko lana zuela aitortu du, eta "oroitzapen politak" gordetzen dituela. "Giro polita genuen geure artean, eta lagunarte polita egin genuen. Pena hartu nuen Urolako trena desagertu zenean", adierazi du. Lasak bakarrik ez, herritar askok ere tristura handia sentitu zuten trena desagertu zenean, sekulako garrantzia izan zuelako eskualdean garraiobide horrek. "Jendeak lehen 'gure trena' esaten zion Urolako trenari, eta maite zuen trena. Manifestazio jendetsuak egin ziren galdu zenean", gogoratu du Lasak sasoi hura. Hark uste du jendeari gustatuko zaiola ka-



— KONTXi —
ARRAINDEGIÀ



Ondo pasau sansebastianak!

Foru Ibilbidea, 4 • AZPEITIA • 943-81 19 46 • Gesalaga, 4 • ZESTOA • 943-14 82 47

rrozan tren hura gogora ekar-
tzea. "Gaurko gazteek ez zuten
ezagutu, baina zaharrei uste
dut gustatuko zaiela", esan du.
Bera hunkituko al den galdetu-
ta, zera dio: "Oroitzapen poli-
tak ekarriko dizkit burura. Po-
lita izango da".

Lehena eta etorkizuna

Karroza jende artean izateko
egun gutxi falta direla, Juanjo
Olaizola Burdinbidearen Euskal
Museoko zuzendariak Urola-
ko trenak izan zuen garrantzia
nabarmendu du. "Garrantzi
handia izan zuen, bailara mun-
duarekin lotu zuelako". Dena
den, Urolako trenak "nahiko
berandu" iritsi zela adierazi du.
"Ordurako bazeuden automo-
bil batzuk, baina oso eskasak,
bakarrik aberatsentzat. Baze-
goen, era berean, autobus bat,
hemendik Arroara joaten zena,
han tren hartu eta Donostia-
ra joateko. La Guipuzcoana ere
orduan hasi zen bere autobu-
sekin, baina pentsa, bi ordu eta
erdi behar ziren Azkoiti-Az-
peititik Donostiara joateko",
azaldu du 1926ko testuingurua
Olaizolak. Errealitate horretan,
trena "kalitatezko garraio
bat" izan zela azpimarratu du,
herritarrek inguruko herri eta
hiriara eramateko modua
egin zuena: "Herritarrei aukera
eman zien Donostiara, Bilbora,
Gasteizera, Iruñera, Madrilera,
Bartzelonara... iristeko".

Halako inportantzia izan
zuen trenak San Sebastian egu-
neko karrozarako gaia izateak
sekulako poza eman dio mu-
seoaren arduradunari. "Noski
eman didala poza. Museoan
jasotzen dugu tren horren me-
moria, eta haren ehungarren
urteurrena ospatzea oso ondo
iruditzen zaigu", dio. San Se-
bastian egunez karroza ikus-
tera joango al den galdetuta, ez
du zalantzarik egin. "Noski han
izango naizela", esan du.

Hala eta guztiz ere, ez du uste
antzinako gauza bat bailitzan
landu behar denik trenaren
irudia, baizik eta etorkizunera
begira ere bai. "Uste dut jendea
ahaztu egin dela Urolako tren-
naz. Azken hauteskundeetan,
talde bakar batek ere ez du bere
programan ezer esan trenari
buruz. Orain ikusiko dugu
Donostian zer aldaketa izango
dituzten trenean, eta ikusiko
dugu nola zarauztarrak, zu-
maiarrak, joan daitezkeen tre-
nean unibertsitatera, Antigua-
ra, hondartzara, Anoetara...
Eta zestoarrak, azpeitiarrak,
azkoitiarrak ezingo dira joan.
Uste dut horrek inbidia eman-
go digula, eta orduan hasiko
garela galdetzen: 'Zergatik ez
guk?'".

Haren arabera, "pena han-
dia" izan zen trenak galtzea,
eta horrek "kalte handia" era-
gin zuen bailaran. "Orduan
errepide berria nahi genuen
Azkaratetik Elgoibarrera joa-
teko, autopista Bilbora joate-
ko, Arroara... Errepide horiek
beren papera bete dute, baina
nahi badugu benetan mugi-
kortasun jasangarria izatea,
trena da ingurugiroa gehien
errespetatzen duen garraio-
bidea. Uste dut gogoratu egin
behar garela tren honekin,
ez bakarrik eduki genuelako,
baizik eta berriro eduki deza-
kegulako", adierazi du Olaizo-
lak.

Trenaren ehungarren urte-
mugari lotuta, badute proiektu
berri bat esku artean Bur-
dinbidearen Euskal Museoan:
trenaren motor zaharra be-
rreskuratzen ari dira, Olaizo-
lak jakinarazi duenez. "Egu-
rrezko bi kotxe berreskura-
tuta ditugu, baina falta zaigu
motorra zaharberritzea. Uro-
lako trenaren motor zaharra
berritzea nahi dugu, jendeak
ikusteko nolakoa zen tren
hura".



Lasa, Pozo, Sanjuan, Quintana eta Olaizola, Burdinbidearen Euskal Museoan.



Ondo pasau sansebastianak!

Ostalaritzarako hornigaiak





sammic
www.sammic.es



Badira festetan lana egin behar dutenak

Sansebastianetan festa polita eta ospakizun ederra izaten da Azpeitian; danbor hotsak, jantzi koloretsuak eta musika doinuak lagun, kaleak giro bereziz betetzen dira. Baina herritar askok gozatzen duten bitartean, bada isilpean lan egiten duen jendea ere. Ikusgai ez diren lan horiek gabe ez litzateke posible izango azpeitiarrok festa egun kutunak ospatu ahal izatea.

Azpeitiko udal brigadak funtsezko zeregina du danborradaren antolaketan, nahiz eta brigadako kideen hitzetan, urteko festen artean lan gutxien ematen diena izan. Iñaki Alberdi brigadako langileak azaldu duenez, prestaketa lanak San Sebastian bezperan egiten dituzte, helduen danborradaren egunean bertan. Eguerdirako plazako hesi guztiak jarrita izaten dituzte, eta hortik aurrera, danborradako

ibilbidean laguntzea izaten da beraien eginkizun nagusia.

Guztira, hogeitaz inguruk osatzen dute brigada, baina danborradako lanak egitea ez zaie guztiei egokitzen; gutxi batzuei baino ez, bizpahiru laguni. Alberdik esan bezala, lan gutxien ematen dien festa izaten da danborrada, eta gainera, aurten sokamuturrik ez denez izango, are lan gutxiago izango dute brigadakoek.

Eguraldiak ere baldintza dezake brigadaren lana. Eguraldi txarra egiten duenean,

ibilbidea moldatu egin behar izaten da. Alberdik gogoratu du, duela bi urte, euria zela eta, Alde Zaharreko zatia moztu eta ibilbidea laburtu behar izan zutela. Hala ere, oro har, ez da «arazo handirik» izaten: bakoitzak ondo daki zein den bere lekua, eta herritarrek ere errespetatzen dituzte jarritako hesiak eta seinaleak.

Lanean aritu arren, brigadakoek izaten dute danborradaz gozatzeko tarterik. Alberdik aitortu du hotza egin ohi duela, baina etengabe mugitzeak

horri aurre egiten laguntzen duela. Momenturik politena, haren esanetan, taldeak plaza iristen direna izaten da, danborrada udaletxeko balkoitik ikusteko aukera izaten dutelako. Luntxa ere izaten dute, eta, lana eta lanaz kanpokoak kontuan hartuta, «festa polita» izaten dela azpimarratu du.

Jantziak prest

Sagarna tindategiko Arantxa eta Maite Sagarnarentzat, San Sebastian eguna «urteko egun berezienetako bat» da. Azpei-

tian danborradak duen garrantzia handia dela nabarmendu dute, eta «pozik» aritzen dira ospakizun horren atzean dauden lanean. Gaur egun, helduen danborradan ateratzen diren 22 talderen jantziak kudeatzen dituzte, eta talde batzuen jantziak urte osoan zehar tindategian gordetzen dituzte, danborradarako prest izateko.

Lan berezia egiten dute kantinera eta banderadunekin. Haiekin harreman zuzena izaten dute, tindategira bertara joaten dira jantziak probatzera;



Etixerako instalakuntzak |

Argiteria | Bainuak

Sukaldeak | Lokalak

atera txinpartak festei!

Izarraitz auzoa, 66 | AZPEITIA
606 30 63 68 | axkiola@gmail.com

neurriak hartzen dizkiete eta beharrezko konponketak egin. Danborrada amaitutakoan, berriz, jantzi guztiak garbitu, prestatu eta hurrengo urtera arte gordetzen dituzte. Urtero pertsona berriak etortzen direla azaldu dute, baina «ilusioa beti berdina» izaten dela.

Sagarna ahizpek azpimaratu dute lanari azaro amaieran ekiten diotela. Jantziak orduan ateratzen dituzte, egoera onean dauden begiratzen dute, eta talde bakoitzerako behar diren piezak prestatzen hasten dira. Kantineren kasuan, urtero hiru edo lau jantzi prestatzen dituzte talde bakoitzeko,

eta horrek are gehiago zailtzen du garbiketa lana.

Hogei urte baino gehiago daramatzate danborradako jantziekin lanean; Irrintzi taldearekin hasi ziren, eta urtez urte talde gehiago gehitu dira zerrendara. Gaur egun, lehen baino askoz lehenago hasi behar izaten dute lanean, baina beti iristen dira guztia garaiz prestatzera. «Lan gogorra» dela diote, baina, aldi berean, «polita»: gazteekin «giro ona» sortzen da, eta danborradan ateratzen direnak «dore ikusteak sekulako poza» ematen die. Gainera, beraiek ere Landeta taldearekin danborradan parte hartzen dute, eta sansebastianetako «urteko festarik onenetarikoa» da ahizpentzat.

Lanean aritu arren, brigadakoek izaten dute danborradaz gozatzeko tarterik

Danborradako 22 talderen jantziak kudeatzen dituzte Sagarnakoek

eta banaka ere «jende ugari» joaten zaie laguntza eske. San Sebastian bezperako arratsaldean ere lanean aritzen dira, azken jantzia jaso arte. Behin talde batek bandera jasotzea ahaztu zuela gogoratu dute, eta ezin izan zutela denda itxi hura eman gabe.

Lan guztia eskuz egiten dute: jantziak garbitu, planxatu, prestatu eta txapelak almidonatu. Azken hori dela «lanik gogorrenetakoa» airtortu dute, «pazientzia eta denbora asko» eskatzen baitu; aurtan 120 txapel inguru prestatu behar izan dituzte. Euriarekin jantzien tintak nahasi egiten direla ere kontuan hartu behar izaten dute,

Ile apaindegiak, jo eta su

Herri osoa festarako prestaketan murgilduta dagoen bitartean, badira agenda hitzorduz beteta izaten duten beste herriar batzuk; ile apaindegietako arduradunak, adibidez. Horietako bat da Loiola ile apaindegiko Oihana Elorza. San Sebastian bezperan danborradako bost taldetako kantinerak eta banderadunak orraztuko ditu: Mendizaleak, Irrintzi, Itsasi, Izarraizpe eta Perdillegi.

Bost talde, hamabost pertsona eta orrazkera. Hori arratsalde bakar baten egitea «ezinezkoa» dela onartu du Elorzak. «Goizean goiz hasiko naiz lanean, talde batzuk goizean zehar orraztuz, eta gainera, laguntzaile bat hartuko dut egun horretarako».

Ordu pila bat ditu aurretik, beraz, eta eskerrak lanak aurreratuta iritsiko den egunera. «Izan ere, talde guztiekin aurreko egunetan bilduko naiz probak egin eta orrazkerak zehazteko», esan du. Horrez gain, San Sebastian egunean ere lana egin beharko du Elor-



Arantxa eta Maite Sagarna ahizpak, Sagarna tindategian. ANITZ URKIZU



EITEN
ARROZTEGIA

**Eman
egurre
danborrei!**

685 75 35 09 • 943-15 01 53



Oihana Elorza sansebastianetarako probak egiten.

zak, bandera jaitsieraren danborradan aterako baita aurten Irrintzi elkarteak.

Lana bera «gustura» egiten duela adierazi du Elorzak; gainera, gazte asko ideia zehatzarekin joaten dira ile apaindegira, eta horrek «erraztu» egiten du prozesua. «Hala ere, badira muga batzuk; adibidez, txapela daramatenek ezin dute nahi duten guztia egin, edota Itsasi elkarteak orrazkera bera eramaten du urtero. Zentzu horretan, elkarte batzuk ari dira orrazkerak zehazten, urtero berdinak izan daitezen».

Etxean «oso danborza-leak» diren arren, Elorzak sansebastianez gozatzeko «denbora gutxi» izaten duela dio. «Hala ere, danborradak

ikustera irtetea naiz kalera. Tira, begirada orrazketetara joaten zaidala onartu behar dut, baina hori danborradan nahiz festetatik kanpo ere gertatzen zait. Lanbidearen ajeak!», adierazi du.

Tabernak, beti

Tapia eta Leturia bikotearen abesti ezagunak dioen bezala, batzuek jai egiteko, besteek lana egin behar dute, eta, ondorioz, tabernekin ezin dute huts egin festetan. Ondo daki hori Etxe Zuri tabernako Iñaki Areizagak: «Herriarrak beti festak iristeko irrikatan egoten dira; tabernariok, aldiz, horiek amaitzeko desiratzen», dio barrez.

San Sebastian jaiak iristear diren honetan, ordea, hasia da dagoeneko prestaketa la-

netan: «Sansebastianak, hala ere, ez dira lan gehiegi ematen duten festak. Biltegia edariz bete behar izaten da, baina beste jai batzuekin alderatuz, ez dugu gehiegi eskatzen. Ez dira saninazioak edota inauteriak bezalako festa luzeak; izan ere, horietan eskaerak bereziki handiak izaten dira». Hala, lanik «zailena edo», zerbitzarien txandak kudeatzea izaten dela dio Areizagak. «Ikasleak izaten dira zerbitzari asko, eta azterketa garaia izaten dute-nez, batzuetan langile berriak aurkitzea egokitzen da. Gero, iluntzean lan egin dutenek, hurrengo goizean txandarik ez izatea ziurtatu behar duzu, eta horretarako, plantilla zabala behar da».

Sansebastianak «festa he-

rrikoiak» direla dio Areizagak, inguruko herrietatik jende gutxi etortzen delako, «asteburua ez bada behintzat», eta horrek badu eragina tabernarien lanean. Izan ere, bertakoak ibiltzen diren egunak izan ohi dira, eta tabernetan «nahiko lasai» egoten dira herriarrak. Hala ere, San Sebastian bezperako danborradan «ordu erdiko estres puntua» izaten dutela gogoratu du: «Parrokiako geldialdian tabernaren aurrean izaten dira talde batzuk, eta gero, Damaso Azkue auzotik igarotzen diren une horretan ere, lan ikaragarria izaten dugu. Gau osoan zehar bost zerbitzari lanean normal izaten badira, ordu erdi horretan zortzi behar izaten dira, eta

denak gelditu gabe, gainera. Zoratzekoa!».

Urtez urte danborrada hazten joan da; talde eta danbor jotzaile kopurua handituz doa poliki-poliki. Aurten bi talde berri batu direnez, 1.700 herritar inguru izango dira danborrak eta barrikak astintzen. Areizagak gogoan du bera txikia zela herriarrak hiru edo lau ilara egiten zituztela kalean danborrada ikusteko. «Gaur egun, ordea, danbor jotzaileak ia ikusleak baino gehiago dira, eta hori nabaritzen dugu tabernetan, danborradaren unean pertsona gutxiago izaten baititugu taberna barruetan. Behin amaitutakoan, ordea, giro ederra izaten da, bertakoak izaten direlako festan dabiltzanak bati bat».

Ondo pasau sansebastianak!



IRURENA GROUP
ADVANCED TECH COATINGS

Gure pinturak Landeta Brikodendan aurkitu ditzazkezu. Gerturatu zaitez.

landeta
brikodenda



IZARRAIZPE

Ikastola publikoa



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

HAZI! HEZI! BIZI!

MATRIKULAZIOA

OTSAILAREN 2tik 13ra

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

BISITA PERTSONALIZATUAK



943 899141



012320aa@hezkuntza.net

**AURREALDEA**


Azpeitiko Soreasuko Sebastian Donearen parrokiak hainbat garaitako elementu artistikoak biltzen ditu. Esaterako, arkupea neoklasiko estilokoa du. Portiko hori XVIII. mendearen erditik aurrera eraiki zuten Izarraizko harrobitik ateratako harriarekin; Ventura Rodríguez (1717-1785) arkitekto espainiarrak diseinatu zuen eta Francisco Ibero (1724-1795) arkitekto azpeitiarrak egin.

Parrokiaren atariko arkupeak hiru arku ditu, eta arku handienaren gainaldean dago San Sebastianen irudia, erdi-erdian. Ezkerreko eta eskuineko arkuen gainean, berriz, arkupearen egile izan ziren bi arkitektoen izenak daude idatzita, latinez.

Atariaren ezker aldean, berriz, Lourdesko amabirjinaren harpea dago. Eraikin hori XX. mendearen aurreneko urteetan eraiki zuten, emakume frantziar batek tximistak eraitsitako dorrea konpontzeko egindako diru ekarpenaren trukean.

Santuaren etxea


San Sebastian da Azpeitiko patroia, eta herriko zaindariaren festak dira urtarrilaren 19tik 20ra artean ospatzen direnak. Soreasuko Sebastian Donearen parrokiak hainbat garaitako elementu artistikoak biltzen ditu, garaian garaiko zenbait gertaeraren erakusgarri. Zertzelada batzuk azaldu ditu Ander Ugarte turismo gidariak.

**FESTARAKO ARRAZOIA**

San Sebastianen irudia parrokiaren atariko arkupearen gaineko aldean, erdi-erdian, dago. 1767. urtetik aurrera, parrokiaren arkupe berria egin zutenean, sortu zuen eskultura hori Pedro Michel (1728-1809) eskultore frantziarrak. Hura Madrilgo San Fernando akademiako zuzendaria eta Espainiako Carlos III.aren kamara eskultorea izan zen Robert Michel eskultorearen anaia zen.

Parrokiaren atariko arkupea bezalaxe, San Sebastianen eskultura ere Izarraizko harrobiko harriarekin egindakoa da. San Sebastian da Azpeitiko patroia, eta danborrada egiten hasi aurretik ospatzen ziren herriko zaindariaren festak. San Inazio, berriz, Gipuzkoako eta Bizkaiko patroia da.

Goiko irudietan, ezkerrean, San Sebastianen irudia parrokiaren ataritik ikusita, eta eskuinean, eskultura bera parrokiaren kanpandorretik begiratuta.



SANTIAGOK ERE BADU BERE TOKIA

Azpeitiko parrokiaren kanpandorretik ikusmira ederra dago, eta Alde Zaharretik urrutiragoko etxeak ere ikusten dira. Dorrean Santiago apostoluaren eskultura dago, izen bereko Done Jakue kalera begira. Irudi hori 1903an jarri zuten, aurretik zegoenaren tokian. Izan ere, irudi zaharra tximista batek eraitsi zuen.



DORREA, ELEMENTU ARKITEKTONIKO ZAHARRENA

Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren zatirik zaharrena dorrea izango dela esan izan da, tenplarioen garaikoa dela uste baitute. Dorreak hiru solairu izango zituela uste dute, baina gaur egun barrutik hutsik dago. Bertan, hainbat elementu zahar daude, besteak beste, kanpandorreko 1904ko xafla bat. Dorrerako atea eraikinaren ezkerrean dago, Lourdesko amabirjinaren harpearen ondoan. Dorrearen gainaldeko orratza lisoa zen, baina XX. mendearen hasiera-hasieran tximista batek jo eta puskatu egin zuen. Gaur egungo kanpandorrearen orratza berritu ondorengo da.



EUSKAL ERRENAZIMENTUKO HARRIBITXIA

Euskal Errenazimentuko harribitxietako bat da Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren dagoen Bakardadearen kapera. Ander Ugarte turismo gidariaren arabera, Euskal Herrian ez daude garai horretako adibide asko. 2002. urtean berrikuntza lan batzuk egiten hasi ziren, eta orduan aurkitu zituzten kaperako margoak eta irudiak.

XVI. mendeko kapera da, arkitekturari, eskulturari eta pinturari dagokionez, Errenazimentukoa. Nicolas Saez Elola (1505-1553) azpeitiarrak dirua eman zuen orube hori erosi eta toki horretan hil kapera egiteko. Gizon hura Perura joan zen Francisco Pizarroren kapitain gisa. Dirutza eginda itzuli zen herrira, eta kapera handi hori eraiki ahal izan zuen. Okin baten azken semeetako bat izan zen Saez Elola; idazten ikasi zuen eta horri esker lortu zuen Ameriketara joatea. Handik bueltan, Ana Velez Alzaga azpeitiarrarekin ezkondu zen, baina banatu egin ziren. Velez Alzagak tratu txarrak egotzi zizkion Saez Elolari.

Arkitektura eta eskultura aldetik aberatsa da Bakardadearen kapera, baina batik bat bertan dauden margoak dira adierazgarriak, Ugartek azaldu duenez.



SAN SEBASTIAN EGUNEZ, PROZESIOA

Loiolako Inazio bataiatu zuten bataio ponte ere Azpeitiko parrokiaren dago. Beheko aldean Azpeitiko herriaren ezkutu zahararen irudia du; otsoak, eltzea eta sua ageri dira. Goiko aldean San Inazioaren irudia agertzen da beheara seinalatuz, bertan bataiatu zutela adieraziz. Eskultura hori Martin Zalduak egindakoa da; Zaldua Loiolako santutegia egiten parte hartu zuen arkitektoetako bat izan zen.

Gaur egun, bataio ponte hori parrokiaren atzeko aldean dago, koruaren azpian. Garai batean, ordea, bataio ponteak parrokiaren kanpoaldean egoten zirela gogoratu du Ander Ugarte gidariak: «Izan ere, parrokiara bataiatu gabe ezin zen sartu». Kareharriz egindakoa bataio ponte da, eta bueltan zuen zilarra lapurtu egin zuten. Ondoren, intxaur egurrekin egin zioten ponteari buelta, eta garaiko euskaraz honako esaldi hau dauka idatzita: «*Emenchen batiatua naiz*».



bertan bizi
erosi

*Ondo pasau
sansebastianak!*



**40****Sansebastianak**Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA****URTARRILAREN 20an,
KALERA**

San Sebastian egunean, meza nagusiaren aurretik, Azpeitiko Parrokiako kideek prozesioa egiten dute San Sebastianen irudiarekin. Elizatik irudia ateratzen duten bitartean eta prozesioan *San Sebastian martxa* jotzen dute Azpeitiko Musika Bandak eta Ardozaleak nahiz Gure Ametsa danborradako taldeek. Azpeitian, gaur egun, bi prozesio bakarrik egiten dira: San Sebastian egunekoa eta San Inazio egunekoa.

Ondoko argazkian, iazko San Sebastian egunean prozesioaren hasiera parrokiaren atarian.

**ALTUNA
Y URIA****Loiola****ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!**



GURE ATERPEAN, ETORKIZUNA EREITEN



BETE SOINUZ ETA KOLOREZ KALEAK!

HERRIA ASKATASUNA KONPROMISOA ZAINZA ERALDAKETA KONFIANTZA

ATE IREKIAK	MATRIKULAZIOA
urtarrilak 23an 16:30ean	otsailaren 2tik 13ra

www.iraurgi.eus • 943 81 02 10

ebizii
ebidontzia zientifikoa onartutako ikasuntza

Ongi
Etorri
J A T E T X E A

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Salbe Auzunea, 21 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 150 869

ELIZ K/ 38, AZPEITIA
TEL./WAPP.: + 34 655 74 6140
NINAIZYOGA@GMAIL.COM
WWW.NINAIZYOGA.COM

ninaiz
yoga zentroa

Arimaren, buruaren eta
gorputzaren arteko oreka

GOZATU SANSEBASTIANEZ!

agirre

oparidenda

atera danbor
hotsak!

erdi kale, 1 • 943-81 13 25 • azpeitia



JOSTALDI
KIROLAK

ONDO
PASAU
JAIK!

Euskalerria, 31 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com

G
GERTU
- Lurrindegia -

Erdikale Kalea, Z/G • AZPEITIA
943 81 43 58 • gertulurrindegia@gmail.com



42

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a GUKA



Iritzia
Intza Zelaia

Pozik, baina urduri

Aurtengo haurren danborradan aterako naiz lehen aldiz Azpeitiko kaleetan barrena. Orain arte, aurreko urteetan, ikastolan bakarrik atera izan naiz, eta beraz, gogotsu nago eta oso pozik. Izan ere, Juan Antxietak musika eskolatik aterako naiz kantinera gisa. Zozketa egin zenean, kantinera izatea egokitu zitzaidan, eta oso pozik jarri nintzen. Hala ere, uste dut urduri jarriko naizela San Sebastian eguna iristean, eta batik bat, 12:30ak iristen direnean. Aurreko egunetan ere urduri egongo naiz ziu-rrenik... Baina ea urduritasun hori kontrola dezakedan eta eguna amaitzean gozatu izanaren sentipenarekin gelditzen naizen.

Esperientzia oso polita izango dela uste dut, Azpeitiko kaleetan zehar jai giroan eta lagunartean ibiliko naizelako. Hori da danborradaz gehien gustatzen zaidana; lagunekin ondo pasatzea musikaren doi-

**Danborradakoa
esperientzia oso
polita izango dela
uste dut**

nua. Danbor hotsak bihotz taupadak azkartzen dituenetan sortzen den zirrara beneran hunkigarria da, zaila da hitzez azaltzea, bizi egin behar da.

Festak ez du etenik San Sebastian egunez

Danbor doinuak ez dira isilduko San Sebastian egunez. Goizean zehar prozesioa, elizkizuna eta kalejira egingo dituzte. Eguerdian haurren danborrada izango da, eta egunarekin amaitzeko, banderaren jaitsieran parte hartuko dute sei danbor taldek.

Ordu txikietan amaituko dira San Sebastian bezperako ekitaldiak, baina Azpeitiko herria danbor eta musika doinuekin esnatu-

ko da biharamunean ere, festetako egun nagusian. Izan ere, 09:00etan hasiko da Izarraitz txistulari taldeko eta Juan Antxietak musika eskolako kideen goiz eresia.

Gure Ametsa eta Ardozaleak elkarteek, Udal Musika Ban-

darekin eta musika eskolako txilibiteroekin batera, kalejira egingo dute. Jarraian, udal ordezkariekin batera, Elizkaletik barrena Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira. Gero, San Sebastianen irudiarekin parrokiatik irten





Iritzia
Imanol Campos

Gogoz joko dut danborra

Txikitan oso danborrada zalea ez nintzen arren, beti parte hartu izan dut festan modu batera edo bestera. Adibidez, urtero-urtero ikastolan egiten diren danborradetan parte hartu izan dut.

Kaleko haurren danborradan 7 urterekin izan nuen lehendabizikoz irteteko aukera. Gastadoreen taldean irten nintzen urte hartako San Sebastian eguneko danborradan. Gainera, banderadun gisa irten nintzen eta udaletxeko balakoitik astindu nuen bandera, plaza herritarrez beteta zegoen bitartean. Orduan piztu zitzaidan danborradarekiko ilusioa. Izan ere, han goitik azpeitiarrak danborra jotzen ikusteak asko emozionatu ninduen.

Aurten lehen aldiz kaleko haurren danborradan danbor jotzaile izango naiz, Izarraizpeko napoleoi gorrien taldean. Eguna iristeko pozez nago; ilusio handiarekin eta gogoz joko dut danborra.

Plaza beteta ikustean piztu zitzaidan danborradarekiko ilusioa

San Sebastian eguna polita da niretzat, eta ziur nago ederki ibiliko naizela danbor festan familiarekin eta lagunekin batera.

eta Alde Zaharreko kaleetan prozesioa egingo dute. 10:45ean hasiko da aurten ere meza nagusia parrokiari. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek eta Musika Bandak *San Sebastian martxa* joko dute parrokiaren barruan, eta hura bukatu ondoren hasiko da elizkizuna. Julian Barrenetxea abesbatzak, Parrokiako Abesbatzak eta Azketa ahots taldeak parte hartuko dute mezan.

Txikienak eguerdian

Eguerdian, berriz, danbor jotzaile txikien txanda izango da. Haurren danborrada 12:30ean hasiko da, hamar taldez eta 500 danbor jotzailez osatuta. Honako talde hauek desfilatuko dute: Ikasberriko Gipuzkoako tertzioak, Iraur-

giko mikeleteak, Izarraizpeko napoleoi urdinak, Juan Antxieta musika eskola, Izarraizpeko Bizkaiko tertzioak, Itsasi dantza taldea, Iraurgiko ezpatadunak, Ikasberriko sukaldariak, Izarraizpeko napoleoi gorriak eta Iraurgiko Zumalakarregi taldea. Horietako talde batzuk Arana kaleetik eta Bustinzuriko Errebaletik jaitsiko dira Olazko Andre Mariaren Plazaraino; eta beste batzuk, aldiz, Artzubiati gogoko dira.

Desfilea ixten, aurtengo karroza joango da, eta hura diseinatzeaz Arte eta Diseinu Ikastegiko irakasle Miriam Quintana, Beatriz Pozo eta Mikel Sanjuan arduratu dira. Aurtengo karrozak Urolako trenaren 100. urteurrena du gaitzat, eta diseinua herrita-

rrek lehenbizikoz ikusteko aukera izango dute San Sebastian egunean. Karrozaren atzetik, berriz, inudez, mikeletez eta abarrez jantzitako herritarrak joango dira.

Bandera jaitsiera

23:15ean hasiko da bandera jaitsierako danborrada, urtero bezala Bustinzuriko Errebaletik. Honako sei talde hauek parte hartuko dute aurtengo azken danborradan: Arauntza, Txalintxo, Irrintzi, Iturri, Vive-ro, eta Oilo-Soro.

Alde Zaharreko kaleak igaro ondoren, gauerdian plazan elkartuko dira taldeak, eta Azpeitiko Musika Bandarekin batera, zuzenean joko dituzte sansebastianetako piezak. Kanpaiek hamabiak jo orduko jaitsiko dute herriko bandera.

**ondo pasau
sansebastianak!**

**Tindategia
agarna**

- Berezitasuna lehorreko garbiketan
- Nordikoak, mantak, edredoiak eta qortinen qarbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943-02 66 81

Donejakue kalea, 6 tel.: 943-81 18 24
20730 azpeitia (gipuzkoa)

orrazkerak
INAXITA
ile-apaindegia

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Alar

Loiolako Inazio
Hiribidea 13
943-50 32 10
AZPEITIA

*ondo pasau
sansebastianak!*

KAÏOA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

FORU IBILBIDEA 3 BEHEA
943-81 65 73 - AZPEITIA

luba

AUTOEN TRANSFERENTZIA
FISKALA
KONTABLEA
FINKEN ADMINISTRAZIOA
GESTIO INMOBILIORIOA
GESTIO LANAK

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Enparan kalea, 45 AZPEITIA • Tel 943-15 75 25 • Faxe 943-15 72 75
ander@lubagestoria.com • lubapedro@gmail.com

KOTOI

—mertzeria—

ondo pasau sansebastianak!

FORU IBILBIDEA, 5 BEHEA • AZPEITIA • 646 00 33 90

MENDIZABAL

AZPEITIKO ERRETEGIA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK

Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01

Amenabar

ondo pasau
sansebastianak!

Eliz-kale 32 Azpeitia
943 150697/685110703
www.amenabardecoracion.com



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Atxubiaga, 3 • AZPEITIA • 943-14 23 54
urraki@urraki.eus • www.urraki.eus • f



Onda pasau sansebastianak!

Jose Artetxe Kalea 13 - AZPEITIA • 943-81 18 57 • pastorkua@hotmail.com



44

Sansebastianak

Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**

Haurren danborrada

Guztira, hamar talde eta 500 ume baino gehiago izango dira San Sebastian eguneko danborradan. Kolorez eta umorez beteko dituzte Azpeitiko kaleak. Talde horien inguruko zertzeladak irakur daitezke datozen orrietan.



IRAURGI IKASTETXEKO ZUMALAKARREGI TALDEA

Sorrera: 1986. urtea.
Txapa.



IKASBERRI IKASTOLAKO GIPUZKOAKO TERTZIOAK

Sorrera: 1996. urtea.
Danborra.



IRAURGI IKASTETXEKO MIKELETEAK

Sorrera: 1986. urtea.
Txapa.



IZARRAIZPE IKASTOLA PUBLIKOKO NAPOLEOI URDINAK

Sorrera: 1986. urtea.
Danborra.



JUAN ANTXIETA MUSIKA
ESKOLA

Sorrera: **2004. urtea.**
Txapa.



IZARRAIZPE IKASTOLA
PUBLIKOKO
BIZKAITARREN
TERTZIOAK

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.



ITSASI KULTUR TALDEA

Sorrera: **1984. urtea.**
Danborra eta txapa.



IRAURGI IKASTETXEKO
EZPATADUNAK

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.



IKASBERRI IKASTOLAKO
SUKALDARIAK

Sorrera: **1996. urtea.**
Txapa.



IZARRAIZPE IKASTOLA
PUBLIKOKO
NAPOLEOI GORRIAK

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.

ZUAR
kafetegi - okindegia
azpeitia
**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Loiolako Inazio Hiribidea 79, behea
tel 943-53 20 42 • zuarazpeitia@gmail.com

Zuri Beltz
Ondo pasau sansebastianak!
Olatzko Amaren Plaza, 10 | 843 63 10 62
zuribeltz.ana@gmail.com | 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Loiola
Ile-apaindegia
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
943-90 24 58

ondo pasau
sansebastianak!


B&R
Braserie
Landeta I. AZPEITIA 943122573

ALUMINIOS AZPEITIA®
Landeta Auzoa - Arretxe kalea. 13 • Apdo. 112
Tel. 943 81 18 32 •
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)


**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



IRTEERA




HERRIKO PLAZA



Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Ikasberri ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 2.- Iraurgi ikastetxeko mikeleteak.
- 3.- Izarraizpe ikastola publikoko napoleoi urdinak.
- 4.- Juan Antxieta musika eskolako taldea.
- 5.- Izarraizpe ikastola publikoko Bizkaiko tertzioen taldea.
- 6.- Itsasi taldea.
- 7.- Iraurgi ikastetxeko ezpatadunak.
- 8.- Ikasberri ikastolako sukaldariak.
- 9.- Izarraizpe ikastola publikoko napoleoi gorriak.
- 10.- Iraurgi ikastetxeko Zumalakarregi taldea.



BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES

*Ondo pasau
sansebastianak!*

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 - 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com



Jose Luis Frantsesena, Azpeitiko plazan. ANITZ URKIZU

"Pribilegioa da danborradari ekarpena egin ahal izana"

Jose Luis Frantsesena Musikaria

Pianoaren aurrean hasi zen lehen melodiak sortzen, belarriari eta senari jarraituta, eta danborradarako sortutako piezekin bere arrastoa utzi du. Jose Luis Frantsesena 'Schubert' (Azpeitia, 1942) danborradako hainbat abestiren sortzailea da; zortzi pieza konposatu ditu guztira, eta horietatik hiru urtero entzuten dira plazan.

GLUAL
hydraulics

ondo pasau **sansebastianak!**

Landeta hiribidea, 11 • Azpeitia • Tel.: +34 943 15 70 15 • comercial@glual.com • export@glual.com

www.glual.com

Guztira, danborradarako zortzi pieza sortu dituzu. Ez da kopuru makala...

Hala da, bai. Hasieran, banda txikiarentzat egin nituen kantak, orduan ez baitzegoen gaur egungoa bezalako banda handirik, ezta gaur egungo instrumentu kopururik ere. Denborarekin asko aldatu dira danborrada eta banda, eta horrek nire piezak berriro lantzeraman nau; denak moldatu behar izan ditut, instrumentu gehiago sartu direlako eta soinua bera ere asko aldatu delako. Lan handia eskatzen du moldaketak egiteak, baina aldi berean, poz handia ere ematen dit, piezak bizirik mantentzen direlako eta gaur egungo danborradaren parte izaten jarraitzen dutelako.

Hainbat pieza talde jakinentzat sortu zenituen. Urteurren bereziekin lotuta?

Barratsu taldeari pieza egin nion 25 urte bete zituenean, eta Amnistiari ere bai, urteurren beraren bueltan; biak 2004an egin nituen. Sanjuandegikoei ere sortu nien abesti bat, arrazoi beragatik, 2005ean. Halako urteurrenek zerbait sortzeko aitzakia polita ematen dute, baina gero kantatu horiek hor gelditzen dira askotan; batzuetan jotzen dira, besteetan ez, eta normala da. Konposatzea gauza bat da, baina gero besteek zer esan nahi duzun ulertzea eta beren egitea... Hori izaten da benetan zailena.

Mandioko polka piezak harri-dura sortu zuen hasiera batean herritarren artean. Nola oroitzen duzu sasoi hura?

Lehenengo haurrek ikasi zuten, eta kalean jotzen hasi zirenean, jendeak zera esaten zidan:



BIEK
CARPINTERIA AROZTEGIA AZPEITIA

ASTINDU ONDO
DANBORRAK

943-15 74 47 / 661 50 56 75 • info@carpinteriabiek.com
www.carpinteriabiek.com

**50****Sansebastianak**Astelehena, 2026ko urtarrilaren 12a **GUKA**

ERREFORMAK ETA ERABERRITZEAK
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK

eraiki proiektuak@gmail.com 747 459 638
eraiki proiektuak.com

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Elizkale, 44 • Tel: 943-81 19 32 • xaxarkiestetika@gmail.com

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Salbe auzunea 39, behea
943-81 00 72 • 608 83 86 37

biur@hotmail.es
Erdi Kalea z/g
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-15 18 09

biur 25 urte zurekin

ondo pasau sansebastianak!

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Bustinzuriko Errebala 16 • 943 815459 • 617 33 31 27
villegas_arraindegia_asier villegas_arraindegia_asier

"Baina zer txorakeria da hau?". Abestiaren zati batean makurtu eta salto egiten dute taldeetako kideek, eta hori ez zen ohikoa. Nik beti esan izan dut: nahi duenak egin dezala, eta nahi ez duenak, ez. Denborarekin, ordea, jendeari asko gustatu zitzaion pieza, eta gaur egun, oso gustura jotzen dute.

Nolakoa izaten da zure sorkuntza prozesua?

Normalean probatzen eta bilatzen jarduten dut. Danborradarako piezak sortzerakoan, askotan zerbait idazten hasten naiz lehenengo, ideia bat, melodia zati bat edo erritmo bat. Sortutako hori pianoan probatzen dut, eta hortik aurrera hasten da benetako lana: ideia hartu, aldaketak egin, moldaketak, zuzendu, berriro probatu... Eta pixkanaka pieza osatzen da. Musika konposatzea idaztea bezalakoa da: burura etorritakoa idazten hasten zara, eta hariari tiraka sortzen da pieza. Lehenengoan ateratzen den hori ez da inoiz bere horretan gelditzen; idazten eta entzuten zoazen heinean, aldaketak egiten joaten zara.

Zuk sortutako abestien artean, zein da gehien gustatzen zaizuna?

Bitxia bada ere, gehien gustatzen zaidana ez da jotzen: Amnistia taldeari egin niona. Barrasurena eta Barrenetxearena ere oso onak iruditzen zaizkit, baina Amnistiak badu ukitu berezi bat, beste zerbait. Askotan gertatzen da sortzailaek gustuko duguna ez izatea gehien entzuten dena, baina hori onartzen ere ikasi egin behar da.

Zure abestiak plazan entzuten dituzunean, zer sentitzen duzu?

Ohituta nago jada, urte asko pasatu direlako, baina hala ere barrua mugitu egiten zait. Ez da nahi adina alditan gertatzen, baina momentu jakin batzuetan zera pentsatzen dut: "Hauze gauza ederra". Une horietan konturatzen zara egingako lanak zentzua izan duela. Horrek satisfazioa eta poza,



"Konposatzea gauza bat da, eta beste bat besteek zer esan nahi duzun ulertzea"

"Gaur egungo danborradak maila handia du, baita bandak ere, eta hori pozgarria da"

"Bitxia bada ere, gehien gustatzen zaidan pieza ez da jotzen: Amnistia taldeari egin niona"

biak sortzen dizkit, isilean bada ere.

Danborradarako egin zenuen lehen pieza 1986koa da, So-reasuko Sebastian. Nola gogoratzen duzu haren sorkuntza prozesua?

Kanta hori izan zen sortu nuen lehenengoa, eta egia esan, ez

zen batere erraza izan danborradan sartzea. Komeriak izan nituen. Jendeak esaten zidan Sebastian Donostiakoa zela, eta nik hala erantzuten nien: "Baina gu zer gara, donostiarrak ala azpeitiarrak?". Azkenean lortu nuen danborradan sartzea, eta gaur egun, atzera begiratuta, pozik nago egindakoarekin. Ez naiz kexatzen.

Denborarekin banda eta danborrada asko aldatu dira. Nola bizi izan duzu bilakaera hori?

Askok hobetu da dena: banda bera, musikariak, baliabideak, entseguak... Jendeak gero eta gehiago daki musikaz, ikasteko aukera gehiago daude, eta instrumentuak ere kalitate handiagoak dira. Horrek guztiak eragin zuzena du emaitzean. Gaur egungo danborradak maila handia du, baita bandak ere, eta hori pozgarria da.

Gaur egun, danborradarako beste pieza bat sortzeko eskatuko balizute, animatuko al zinateke?

Bai, dudarik gabe. Orain lehen baino errazago edo hobeto egingo nukeela uste dut, urteek esperientzia ematen dutelako. Gauzak beste modu batera ikusten dituzu, lasaiago, eta horrek lagundu egiten du sortzerakoan.

Zer dira zuretzat San Sebastian festak?

Festa polita izaten da, beti gustatu izan zaizkit. Musika, kalea eta jendea elkartzaren diren egun bereziak izaten dira, eta Azpeitian jai horiek oso modu berezian bizitzen dira, gainera. Pribilegioa da niretzat horren parte izatea eta danborradari urteetan zehar ekarpena egin ahal izatea.



IKASTOLAK

**Ondo pasatu
sansebastianak!**



2026-2027 ikasturtea

Matrikulazio epea: otsailaren 2tik 13ra

azpeitiko
ikastola
ikasberri koop.e.



943-15 12 46

www.azpeitikoikastola.eus

Ate irekietan
izena emateko:







**GUKAKIDEENTZAKO
PREZIO BEREZIEKIN**



Nik, zuk eta guk

**IZAN GUKA,
JANTZI GUKA!**

Produktu guztiak ikusgai
www.gukadenda.eus atarian

Jertsea: 39€. Bazkideek: 33,15€
Kamiseta: 23€. Bazkideek: 20,70€
Poltsa: 16€. Bazkideek: 13,6€



AZPEITIK IRTENDA KO TALDEKO BIDAIAK 2026

	NORVEGIA IPARRALDEA Aurora Borealak Martxo
	TXINA Apirila
	KROAZIA/ BOSNIA- HERZEGOVINA Ekaina 
	GROENLANDIA/ KOPENHAGE Uztaila
	TREKKING ATLAS (Marruecos) Abuztua
	PROVENTZA Iraila 
	KOLONBIA Urria
	VALENTZIA Martxo 
	OVIEDO Ekaina 
	BALTIKOAK Uztaila
	WRC, RALLY ESTONIA Uztaila
	TREKKING ISLANDIA Abuztua
	MADAGASKAR Iraila
	OMAN Abendua



lazko helduen danborradako une bat. ARNAITZ RUBIO APREA

AGENDA

Urtarrilak 17, larunbata

22:00. Ehun Kilo eta Belarri Fuckers taldeen kontzertuak, Sanagustin kulturgunean.

Urtarrilak 19, astelehena

San Sebastian bezpera

22:00. Helduen danborrada, Olazko Andre Mariaren Plazatik irtenda. Aurten, bi talde gehiago batuko dira danborradara: Iturri eta Vivero. Gainera, Irrintzi taldearen 50. urteurrena ospatuko du danborradak.
00:00. Talde guztiak plazan elkartuko dira, bandera igotzeko eta danborradako piezak jotzeko.

Urtarrilak 20, asteartea

San Sebastian eguna

09:00. Goiz eresa herriko kaleetan, Izarraitz txistulari taldearekin eta Juan Antxieta musika eskolakoekin.
09:30. Ardozaleak eta Gure Ametsa danborradako taldeen, Udal Musika Bandaren eta musika eskolako txilibiteroen kalejira.
10:15. Udal ordezkariak Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira.
10:30. Prozesioa, herriko kaleetan.
10:45. Meza nagusia, Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara.
12:00. Sokamuturra, plazan.

12:30. Haurren danborrada, Arana kaletik eta Artzubia hiribidetik irtenda. Kalek kale ibiliko dira hamar taldeak, eta plazan amaituko dute ekitaldia. Arte eta Diseinu Ikastegiak Urolako trena gai hartuta egingo dako karroza ere aterako dute.
17:30. Haur eta nerabeei zuzendutako ikuskizuna, Soreasu antzokian.
18:00. Jai Alai Winter Series desafioa, Izarraitz pilotalekuan.
23:15. Bandera jaitsierako danborradaren hasiera. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira parte hartuko duten taldeak (Iturri, Vivero, Oilo-Soro, Irrintzi, Txalintxo eta Arauntza), eta Alde Zaharrean kalejira eginda, plazan bukatuko dute ibilbidea.
00:00. Banderaren jaitsiera plazan. Udal Musika Bandak joko ditu danborradako piezak, zuzenean.



Iritzia

Nagore Alkorta

Ba al dago urtea hasteko modu hoberik?

Baserritar jantziak gorde orduko hasten gara sansebastianetarako trajeak prestatzen. Gabonetako apaingarriak jaso bezain pronto, danborrak ateratzen ditugu. *Hator*, *hator* edo *Olentzero* kantatzetik, gure *playlist*-ean *Tatiago*, *Idiarena* eta beste pieza guztiak jartzera pasatzen gara. Eta ba al dago urtea hasteko modu hoberik?

Konturatzerako, hemen ditugu sansebastianak aurten ere, eta zer esango dizuet bada: pozik eta gogotsu nago. Behin baino gehiagotan aitortu dut lerro hauetan nire festa kuttunak direla. Badutelako zerbait berezia, hitzen bidez esplikatzeko zaila izan arren, barruan sentitzen dena.

Azken urteotan, festa udalletxeko balkoitik bizitzeko ohorea izan dut. Alkate kargua hartu berritan, uste nuen urteekin ohitu egingo nintzela danbor hotsen bueltan sortzen den magia horretara, baina baita zera ere: lehen urtean

adina edo gehiago hunkitzen naiz oraindik ere gauerdian *San Sebastian martxa* hasten denean; emozionatu egiten naiz taldeak bata bestearen atzetik pasatzen ikustean; eta zer esanik ez denak elkartzen direnean plazak izaten duen itxurarekin, egoten den giroarekin.

Bi talde berriren parte hartzeari esker (ongi etorri!), aurten, 33 taldera iritsiko gara helduen danborradan. 1.600

Bi talde berriren parte hartzeari esker (ongi etorri!), aurten, 33 taldera iritsiko gara

Atera kalera, elkartu lagunekin, egin eten bat eguneroko errutinan eta bizi momentua

pertsona inguru esan nahi du horrek. Haurren danborradan, berriz, 500 ume inguru aterako dira, ADIko kideek egin-dako Urolako trenari buruzko karroza dotorea atzetik dutela. 15.000 biztanle pasatxoko herri batentzat bada zerbait.

Festak, noski, lana ere badakar berarekin. Horregatik, eskerrik asko, bene-benetan, sansebastianak posible egiten dituzuen guztioi, zuen denbora eta ilusioa eskuzabaltasunez partekatzeagatik. Era berean, gogoratu: *Danona da festie*, *danona da ardurie*.

Konturatzerako iritsi dira sansebastianak, eta, tamalez, amaitu ere nahi baino lehengo egingo dira. Saia gaitzen, beraz, ahalik eta gehien gozatzen, izan danborra joz edo ikusle modura. Atera kalera, elkartu lagunekin, egin eten bat eguneroko errutinan eta bizi momentua. Ea aurtengo sansebastianek ere arrasto polit bat uzten duten guztiongan.

Gora Azpeitia eta gora sansebastianak!

bastidasukaldeak

*Ondo pasau
San Sebastianak!*